



Bertsolaritzak eman dienez

Bertsolariak, bertsokideak eta lagunak dira Kattin Madariaga Apaolaza aranztarra eta Kattalin Lizarraga Mendia leitzarra. Bertsolaritzaz aritu dira TTIPI-TTAPAREKIN. / 3

UDAKO OPORRAK

Udako oporren ondotik, hurrengo **Ttipi-Ttapa** irailaren 3an hartuko duzue. Bitartean, izan ongi eta uda ona izan!

Ongi
ibili!

GEHIGARRIA / 7



TELEFONO GIDA



ZOZKETAK / 40



deceuninck



Erosotasunaz gu arduratuko gara ...



Elegant **ThermoFibra Infinity**
Uf (W/m²k) **0,85. Passive House**



JASANGARRIAK ETA ERAGINKORRAK



AURREZTE ENERGETIKOA



SEGURTASUNA ETA SENDOTASUNA



ISOLAMENDU MAXIMOA

... eta zu zoriontsu izan.

**%45 ERA BITARTEKO DIRULAGUNTZAK
GESTIOEKIN LAGUNDUKO DIZUGU**



Adinekoak dira Kattin Madariaga Apaolaza —ezkerrean— eta Kattalin Lizarraga Mendia —eskuinean—. Madariagak aste honetan 18 urte beteko ditu eta Lizarragak abenduan.

— BERTSOLARITZA —

Bi neska gazte bertsoaren bueltan

Bertsolariak eta lagunak dira Kattin Madariaga Apaolaza aranztarra eta Kattalin Lizarraga Mendia leitzarra. Gazteak dira, baina euren arrastoa uzten ari dira bertso munduan. Orain arte egin duten bideaz eta bertsolaritzak eman dienaz aritu dira TTIPI-TTAPAREKIN

G. Pikabea ARANTZA/LEITZA

Leitzarra da Kattalin Lizarraga Mendia eta aranztarra Kattin Madariaga Apaolaza. Adinekoak dira biak, 2008an sortuak, bertsolariak eta bertso kideak, baita lagunak ere. Agerikoa da euren arteko konplizitatea eta ahizpatasuna. Bertsolaritzak eman die elkar ezagutzeko, lagun egiteko eta oholtzak eta bertze aunitz konpartitzeko bidea. Aste honetan beteko ditu 18 urte batek, eta abenduan bertzeak, baina heldutasunez mintzatu dira.

Nor dira Kattin eta Kattalin?

«Lagunak egitea baino gehiago lagunak izatea gustatzen zaiona» dela erranez hasi du aranztarrak bere aurkezpena. «Egiten dudanarekin konprometitu eta zorrotza» dela kontatuz segitu du eta bereziki maite duena «hitzaren josteta» da; «horrekin gozatzen dut. Eta horren bueltan egin ditudan lagun hagitx laguna naiz, baina aldi berean, alderdi txar guzien kontzientea naiz».

Leitzarrek, berriz, «lagunekin egotea» gustatzen zaiola aitortu du, baita «sozializatzeko gauzak egitea» atsegin duela ere: «bertsoak, parranda, futbola... Nahiko mugitua naiz. Ez dakit ezetz esaten eta denera apuntatzen naiz. Gauzak hobekiago edo okerrago aterako zaizkit, baina saltsa guzietan ibiltzen naiz». Lenbailen musika taldeko abeslari ere ibilia da, «ezetz esaten ez dakidalako. Baina orain ez. Dena ezin da».

Biak «nahiko musikazaleak» direla gehitu dute, eta argi gelditu da «bertso udaleku zaleak» ere badirela. Hain zuzen, bertso

udaleku horietako batean eza-gutu zuten elkar, 2022an Larraulen (Gipuzkoa). Batak zein bertzeak bihotzean ongi iltzatuak dituzte udaleku haiek. Lizarragak «oso oroitzapen onak» ditu eta «inflexio puntua» izan zela dio, eta Madariagak «bizitzako oroitzapenik hoberenetarikoa» ordukoak ditu: «Bizitzako aste bat aukeratzeko eskatuta, horixe aukeratu nuke. Mundua ireki zitzaigun».

Geroztik parte hartu izan duten udalekuetan ere «aunitz gozatu» omen dute, «baina zer ziren edo gozatuko genuela jakinda joan ginen. Bertso udaleku horiek gure gisako jende gehiago badela ikusteko balio izan digute», esplikatu du Madariagak: «Normalean bertso udalekuetan biltzen garenak herri bakoitzeko bitxo arraroak izaten gara». Eta hala borobildu du Lizarragak umoretsu: «Eta bitxo arraroak bilduz gero ez direla hain arraroak ikusten da. Udalekuak, juntadizoak... Hori ere bertsolaritza da». —>

—> **Noiztik bertsotan?**

Xalbador Madariaga Elizondo (Arantza, 1930) bertsolariaren biloba da Kattin Madariaga, eta aski gazterik sartu zen bertsolaritzan; «sei bat urterekin», erran du: «Eskolako orduko zuzendaria patio denboran bertso eskola moduko bat ematen hasi zen. Nire anaia joaten hasi zen, eta gurasoek behin eta berriz erran zidaten joateko. Nik ez nuen nahi, baina azkenean, joan nintzen». Kontatu duenez, «hasieran, ez nuen batere gozatzen. Ez nuen ententitzen, ez nekien zer zen bertso bat». Baina hartu zion neurria: «Arantzan eskolatik kanpoko bertso eskola sortu zuten, eta harat ere joateko eta joateko erran zidaten. Oroitzen naiz joan nintzela, eta buruak klik egin zidala. Orduan ententitu nuen bertsolaritza hitzekin jostetan aritzea dela. Erran nahi nuena errateko espazio bat harrapatu nuen, eta gainera, aditzen zidatena». Huraxe izan zen abiapuntua, eta geroztik horren bueltan dabil: «Arantzako bertso eskola desagertu zen [gaur egun bada], eta nire adinekoekin Berara joaten hasi nintzen, eta ondotik, Lesakara, handien bertso eskolara». Gaur egun, bi horietan segitzen du.

Lizarragak Leitzako Errezuma baserrian izan zuen «lehenbiziko hartu-eman» bertsoarekin, «nire gurasoen osabaren baserrian. Igandero han bazkaltzen dugu eta beti *Hitzetik Hortzera* jarria izaten da. Anai-arreben artean, *Hitzetik Hortzera* gustura ikusi izan dudak bakarra izan naiz». Eta hala, entzule izatetik koska bat goiti egin zuen: «Handik urte batzuetara, bosgarren mailan, bertso eskola saioak egin genituen eskolan Julio Sotorekin. Oso gustura egon nintzen, erri-matzeko moldatzen nintzela ikusi nuen, eta bertso eskolan apuntatzera animatu ninduen». Leitzako bertso eskolan hasi zen, nahiz eta gaur egun, Lasarteakoan dabilen: «Leitzan hasi nintzen, baina adineko bakararra gelditu nintzen, eta zaharragoekin edo askoz gaz-



2024ko Nafarroako Eskolartekoan elkarrekin. Madariagak jauntzi zuen zapela.



Lizarraga eta Madariaga Señora Sariketako aurtengo kanporaketan.

teagoekin aritzeko aukera baino ez nuen. Azkenean, Lasartera joan nintzen, han ezagunak nituelako». Hantxe segitzen du.

Bertso eskolak

Bertso eskolak topagune garrantzitsuak izan dira bi gazteentzat. Lizarragaren kasuan, «zeure burua eta oholtzak prestatzeko toki bat» izatetik harago, «herritik atera eta ostegunero Lasartera joateko aukera izatea oasi bat» dela sentitzen du. «Bertso eskola beste pertsona batek zure bertsokera beste begirada batetik ikustea eta modu konstruktiboan epaitzea da, zaren bertsolaria eraikitzeko atea irekitzen dizun espazioa». Madariagaren irudiko, «bertsotan ibiltzen ez

den jendeak ez du ententitzen bertso eskolaren kontzeptua. Bertso eskolara joaten garenean, ez gara beti gai bat paratu eta horri kantatzen aritzen. Bertso eskola saretze bat da. Kide batzuekin entrenatzen zara, eta entrenatzen ari zaren bitartean zure kideak ere entrenatzea nahi duzu. Bitartean, asteburuko saioan nola ikusi zaituen galdetuko diozu, zure kezak kontatuko dizkiozu, edo egun batean merienda bat eginen duzue eta bertsoa ez duzue aipatuko. Entrenatzera zoaz, baina ez da hori bakarrik. Bertso eskolako kideak zaintzea ere bada bertso eskola».

Leitzarrarentzat «bertso eskolak, askotan, terapia» dira. «Adibidez, nire gurasoak saio

aurreko nire nerbioak kontrolatzen saia daitezke, baina bertso eskolako irakasleak hobekiago jakinen du nerbio horiek kudeatzeko niri zer esan, bera oholtzan ibili delako eta bada-kielako zer esan». Eta bertso eskolako irakasleak aipatuta, aranztarrak ere goraiatu nahi izan du berea: «Inork ez daki nire irakasleak baino hobekia- go ni nola aritzen naizen bertsotan. Berak nire bertsokera bertso eskolako ganbarako intimitatean ezagutzen du. Eta uste dut plazan botako ditugun bertsoak ez direla inoiz hobere- nak eta greenak izanen».

Elkarrekin oholtzan

Oholtza bat baino gehiago partekatu dituzte elkarrekin. Eskolartekoetan, adibidez. Adinagatik, aurtengoa izan dute azkena. Hiru aldiz parte hartu du leitzarrak eta lau aldiz aranztarrak, bai Nafarroakoan, bai Euskal Herrikoan. Eta horren harira, saioak batera tokatu zaizkiela onartu dute. «Biak profil jakin batekoak gara, neska gazte nafarrak, eta aunitzetan, tristeza bada ere, plazak kupoaren arabera osatzen direnez, plazak partekatzea tokatu zaigu», dio Madariagak. Neska gazte nafarrak izateak atek irekitzen dizkielako? «Ez gara kexatuko, horrek oholtzak ekartzen dizkigu, baina nik Kattin Madariaga Apaolaza izateagatik edo bertsotan aditu nahi didatelako deitzea nahi nuke, ez neska gazte nafarra naizelako». Dena den, Lizarragak gehitu du «beste ate batzuk ere irekitzen» dizkiela: «batzuetan kupo bat besterik ez gara, eta besteetan zuzenean gu garrelako deitzen digute».

Elkarrekin kantatu zuten azken aldi horietako bat Euskal Herriko Eskolartekoan izan zen, ekainaren 13an, Arantzan. Leitzarrak kontatu duenez, «aurreko urtean pasatua ailegatu nintzen Arantzara [jaz ere Euskal Herriko Eskolarteko finala Arantzan izan zen], botaka... Baina gero, oholtzan beti lasaitzen naiz. Aurten, Eskolartekoan azken urtea izanda,

«Ostegunero bertso eskolara joatea oasi bat da eta askotan terapia bat»

KATTALIN LIZARRAGA MENDIA

«Oholtza bertsolaritzaren alderdirik minimoena da»

KATTIN MADARIAGA APAOLAZA

banekien txapela ez nuela irabaziko eta disfrutatu nahi nuen. Gorputzaldi onarekin igo nintzen oholtzara eta ongi pasatu nuen». Bigarren gelditu zen: «Ez nuen espero!», onartu du.

Aranztarrak, ordea, ez zuela gozatu dio: «Aurten gauza aunitz eduki ditut buruan: eskolartekoa, selektibitatea, bigarren batxilergoa, Nafarroako Bertsolari Txapelketa [17 urterekin lehenbiziko aldiz parte hartu du]... Eta ez nuen Euskal Herriko Eskolartekoan pentsatu. Hasieran uste nuen lasaitasuna zela, baina oholtzan ohartu nintzen hausnarketa eta kontzientziazio falta zela. Bat-batean aitzinetik egin beharreko lan mental hori etorri zitzaidan. Bertso aldiro neure buruari ez huts egiteko erranez ibili nintzen, eta ez nuen gozatu. Gainera lehenbizikoa nintzen, eta ez zait batere gustatzen; mentalki, horrek beti nerbioa jartzen nau».

Hala ere, biek aipatu dute finalean izandako maila: «Euskal Herriko zazpi herrialdeetako gazteak aritu ginen, eta uste dut ikaragarritzko maila izan zela. Ea zenbat ekimenetan juntatzen ahal diren zazpi herrialdeetako gazteak. Bakoitzaren lanetik haratago, horrekin gelditu beharko genuke».

Oholtza baino gehiago

Oholtzaz aritu dira, baina hori baino gehiago eman die bertsolaritzak. «Oholtza bertsolaritzaren alderdirik minimoena da», adierazi du Madariagak. Euren hitzetan, bertsoa ez da oholtza bakarrik; ez da errima eta neurria bakarrik.

Lizarragak honela aitortu du: «Bertsolaritzarik gabe, ez nintzateke oraingo Kattalin izanen, inondik inora ere ez. Segurtasuna eman dit, entzuna sentitzen naizen espazio bat eman dit, beste kuadrilla bat, zirkulu bat, Euskal Herriko hainbat txokotan parranda egiteko aukera, lagundu diguten begirale pila bat, burua lantzeko ariketa, oholtza koloretsuak ikusita ze diferenteak garen eta desberdinak izatea ze beharrezkoa



Lizarraga –ezkerrean– eta Madariaga –eskuinean–.

den kontziente izateko aukera... Izaera aldetik pila bat markatu nau; egoerak beste modu batera ulertzeko eta kudeatzeko gaitasuna eman dit eta asko eskertzen diot. Euskal Herrian, osasuntsuena eta askotarikoen den zirkulua iruditzen zait».

Madariagak bertsolaritzak eman dion «sarea» nabarmendu du, eta horrekin batera, «Euskal Herriari buruzko pertzepzio bat» hartu du, «bertze edozein esparrutatik ikusi ezin dena. Adibidez, euskararen egoerari buruz ez nuke hainbertze hausnartuko bertsotan ibili ez banintz. Edo ez nituzke hainbertze euskalki edo Euskal Herriko hainbertze herri eza gutuko». Gehiago ere bai: «Ezetz erraten ikasteko eta burua

aktibatzeko gaitasun handia» eman diola sentitzen du, baita «begirada feminista» ere. «Bertsoa aunitz da burua eta ahotsa, baina bertsoa aunitz da gorputza. Zu oholtzan zaude, begi aunitz zuri begira daude, historikoki gizonen espazioa izan da eta ni neska gaztea izanda, bertze edozein esparruk emanen ez lidakeen begirada eman dit bertsolaritzak». Eta segitu du: «saretzeko, bertzeen tokian jartzeko, bertzeen errealitateak entenditzeko gaitasunak...». Hori guztia eman dio. «Halere, ez da sobera mitifikatu behar, bertsolaritza ez da perfektua».

Emakumeak plazan

Gero eta emakume gehiago ikusten dira bertsotan plazetan,

eta bi bertsolari gazteak ere horren jakitun dira. Baina bada oraindik non eragin. Madariagaren arabera, «plazetako presentzia orekatzen saiatzen ari dira, saio batean erdiak gizonetzkoak eta bertze erdiak emakumezkoak izan daitezen, eta hori positiboa da. Baina plazetan dabilzan gizon horiek ehun dira eta emakumeak hogeia. Alegia, jende aitzineko kopurua orekatua da, baina aritzen diren horiek osatzen duten kopurua oraindik ez da orekatua». Bere hitzetan, «orekatze bide horretan paper hagitz garrantzitsua dute ahalduzte bertso eskolek, Señora Sariketak edo ildo trans-feministatik antolatzen diren sariketek. Baina ezin da erran orekatua dagoenik. Final batera emakume gehiago ailegatuiko dira, baina txapelketa osorik hartzen badugu, gehiengoa gizonetzkoa da».

Bertze hutsune bat hartu du hizpide Lizarragak: «Parrandan bi neska baino askoz lehenago ikusiko dituzu bi mutil bertsotan eta norbaitek parrandan bi lagun bertsotan aritu direla esaten badizu, gizonetzkoak imajinatuko dituzu». Kontrara, «beste korrante batean, Señora Sariketari, adibidez, emakumeak askoz gehiago» direla gehitu du, «baina hori oraindik falta zaigun espazio baten alde borrokan ari garelako da». Bere ustez, «gizartean, emakumeoi askoz gehiago eskatzen zaigu, edo merezi dugun leku bat lortzeko demostratu behar dugu, egotea ez da nahikoa». Bertso eskolan irakasle ibiltzen da eta hor ere sumatua du: «Bertsoak kantatzerakoan, mutilek ausardia handiagoa dute. Bertso txarragoa botako dute, baina burua altxa-altxa eginda geldituko dira, eta neskak, aldiz, zerbait perfektua bota bitarte isilik». Berak ere hori sentitu du: «Eskolartekoan, aukera izan nuen lehenbiziko urtean, ez nuen parte hartu, 'Perfektu egin behar ez badut, ez naiz aterako' esaten nuelako».

Aranztarrak Xilaba Txapelketako adibidea esplikatu du: «Txapelketan bederatzi —>

«Gazteentzako sariketa aunitz egiten dira baina saioak hagitz gutti»

KATTIN MADARIAGA APAOLAZA

«Oraindik, falta zaigun espazio baten alde borrokan ari gara emakumeak»

KATTALIN LIZARRAGA MENDIA

—> emakumezkoak parte hartu zuten eta borts ailegatu ziren finalera. Hori da perfektu egin behar hori. Ez diogu geure buruari gaizki egitea baimentzen. Igual gazteongandik egin beharreko aldaketa da. Nire lehenbiziko eskolartekoan neska bakarra nintzen, eta aurren gehiago ginen neskak. Eskolartekoan pentsaera hori hartzen badugu, igual Txapelketa Nagusian aiseago aterako gara».

Mugarriak

Eskolartekoak, Señora Sariketa, Madariagaren kasuan Nafarroako Bertsolari Txapelketa, bertzelako saioak... Gazteak izanagatik, han eta hemen ibiltzeko aukera izan dute. Horien artean, «Bilboko Aste Nagusiko Algara konpartsak urtero bertsolari gazteekin egiten duen saioa» aukeratu du Madariagak, beretzat «mugarri» izan delako. «Gazteentzako sariketa aunitz egiten dira Euskal Herrian, baina gazteentzako saioak hagitx gutti. Bilboko konpartsa honek eskolartekoan kantatu dugunoi elkarrekin kantatzeko espazio bat ematen digu. Behin bakarrik kantatzen du bakoi-tzak, baina ondorengo ikaragarri zaintzen gaituzte».

Lizarragak, ordea, Señora Sariketa aukeratu du. «Sariketa horretan lehiak ez du zentzurik. Zu ondokoarengatik poztzen zara eta ondoko zurengatik. Zaindua sentitu izan naiz eta niretzat mugarrira izan da».

Txapelketak eta lehia

Eta txapelketak beharrezkoak ote dira? «Beharra bada. Ez dakit lau urtetik behin BEC edo Nafarroa Arena beteko ez balira, bertsolaritzak biziraunen ote lukeen. Edo gazteak eskolartekoetan ariko ez bagina, segituko ote genuke kantari saioetan? Hala ere, lehiari tokatzen ez zaion indarra ematen zaio», erran du Madariagak. Nafarroako Bertsolari Txapelketan bizitakoaz aritu da: «Bertze bertsokera bat ezagutu nuen. Eskolartekoa lehia iruditzen zaigu, eta Nafarroako Txapelketa lehia bider hogei iruditu



Elkarriketan agerikoa izan da bi gazteen arteko konplizitatea.

Kattin eta Kattalin hurbiletik

- **Batxilergoko ikasgairik gustukoena? Kattalin:** Filosofia. **Kattin:** Euskara edo Latina.
- **Bizitzako erreferente bat? Kattalin:** Nire amona. **Kattin:** Estitxu Arozena.
- **Bertso bat? Kattalin:** Manex Leonek, hitza emanda, 2023an Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan kantatu zuena, ortzadarrarena. **Kattin:** Sustrai Colinak 2022ko Txapelketa Nagusian, Irungo bakarkakoan kantatutakoak.
- **Bertsolari bat? Kattalin:** Oihana Iguaran. **Kattin:** Maialen Lujanbio edo Onintza Enbeita.
- **Txapelketa Nagusiari begira faborito bat? Kattalin:** Leitzarrak. **Kattin:** Maialen Lujanbio edo Sustrai Colina.
- **Plaza bat? Kattalin:** Señora Sariketa. **Kattin:** Bertso eskola.
- **Doinu bat? Kattalin:** *Haurtxo txikia negarrez dago.* **Kattin:** *Calle Melancolia.*
- **Pentsatutako bertsoak edo bat-batekoak? Kattalin:** Bat-batekoak nahiago. **Kattin:** Bertzeen pentsatutakoak eta nire bat-batekoak.
- **Norekin kantatuko zenukete gustura? Kattalin:** Jon Maiarekin. **Kattin:** Roxi Lazkanorekin eta Kristina Mardarasekin.
- **Zer ikasteko asmoa duzue? Kattalin:** Nik Kazetaritza. **Kattin:** Euskal Ikasketak.
- **Amets bat? Kattalin:** Bizi beharrekoa bizitzea eta telebistako programa bat aurkeztea. **Kattin:** Liburu bat ateratzea eta noizbait Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalera ailegatzea eta nire lagunek kamiseta bat egitea.

zitzaidan. Gainera, ez duzu lagunekin kantatzen eta ondokoak nik ongi egitea nahi du, baina ez berak baino hobekia. Entenditzen dut bertsoak horretatik behar duela, eta biziraun badu, horri esker dela hein batean, baina...». Hala gehitu du: «Zeinen polita izanzen litzatekeen lehia kenduta».

Leitzarrari, txapelketetan, «askotan, kanpoan lehian ari direnen txotxongilo bihurtzen» direla iruditzen zaio. «Oholtzan

gure lana egiten ari gara eta kanpotik zerbait espero dute. Hala ez bada, baten batek disgustua izanen du. Bai, txapelketa lehia da, eta batek irabaziko du, baina horren aurretik dago bertsoaz gozatzea eta gustura gelditzea». Onartu du, «lehian ari ez naizenean, askoz ere hobekiago kantatzen» duela; «ez diodalako neure buruari hainbeste exijitzen. Saioa zenbat eta informalagoa izan, ni orduan eta lasaiago».

Nerbioak

Urduritasunak kudeatzea. Horixe bertze erronka. Lizarragak, adibidez, «nerbioak oso gaizki kudeatzen» dituela aitortu du, «askotan aritu naiz botaka... Urduritasun handiarekin ibiltzen naiz, igual du saioa izan edo txapelketa izan. Oso perfektzionista naiz eta... Baina konpentsatzen dit, bestela, ez nintzateke animatuko».

Madariagak, berriz, «nerbioak beti» sentitzen baditu ere, «aunitz eragiten» omen dio bertso kideak: «Lagunekin, konfiantza dudan eta lasaituko nauen jendearekin kantatu behar badut, lasaiago aritzen naiz. Idolotzat ditugunekin bertsotan aritzeak kezka pixka bat sortzen du, edo ezagutzen edo konfiantzarik ez duzunekin kantatzeak ere bai». Leitzarra iritzi berekoa da: «Kantatzeko ordenak eta ondoan dudan asko baldintzatzen ditu nire nerbioak».

Bertsolari egin edo jaio?

Aranztarraren irudiko, «bertsolari on bat, oinarrian bertso kide on bat da, eta ondokoari bertso on bat botatzeko bidea irekitzen diona»; leitzarraren tzat, berriz, «oholtza kideak zaintzen dituen» da, «bertsolariak sare bat dela entenditzen dugulako pentsatzen dugu hori».

Eta bertsolari egin edo jaio egiten da? «Berezkoa behar dela erranen nuke. Abilidadea behar da, eta batez ere, interesa. Baina berezkoarekin bakarrik ez zoaz inora. Landu egin behar da, burua beti martxan eduki», dio aranztarrak. Leitzarrak ere hala uste du, «gustukoa eta gaitasuna izan behar dela, baina landu beharrekoa dela», eta «bertsolariek asko hausnartu» behar dutela.

Badute zer kontatua eta bistan da gai aunitzen inguruan aunitz hausnartutakoak direla. Bertsoaren bueltan segitu nahi dute biek eta bereziki «bertsolaritzak gibeletik edo atzetik duen saretze hori guzia da galdu nahi ez duguna». Bertsoa ikusten dena baino aunitzez gehiago delako Kattalinentzat eta Kattinentzat.



ARANTZAKO EGITARAUA



Txupinazoaren ondotik, herriko dantzariak euren saioa egingen dute.

ABUZTUAK 13, ORTZEGUNA

12:00etan txupinazoa. Arantzako Dantza Luzea erakusten aritutakoek eta aritzen direnek botako dute. **Ondotik** kalejira herriko txistulariekin eta Lesakako Musika Eskolako akordeoilariekin. Horrez gain, azken urtean jaiotako haurrei ongietorria egingen die udalak eta programaren azal eta kontrazal lehiaketetako sariak banatuko ditu. **12:30ean** herriko dantzarien emanaldia. **14:30ean** herri bazkaria Euskal Parrillarekin eta Trikidantzek alaitua. Arantzako Gazte Asanbladak bingoa egingen du (Herri bazkariako txartelak herriko ostatueta daude salgai. Erostea azken eguna abuztuaren 8a izanen da) **18:00etan** eskolako ikasleek marraztutako kartelen erakusketa gorapean eta aldi berean, haur eta gaztetxoentzako jokoak.

20:00etan J&J DJekin musika plazan. **21:30ean** zezensuzkoa. **00:00etan** J&J DJekin musika plazan.

ABUZTUAK 14, ORTZIRALEA

10:00etan diana herriko trikitilariak eta pandero jotzaileekin. **11:00etan** puzgarriak frontoian. **12:30ean** bertso kantu poteoa Maddi Ane Txoperena eta Julio Soto bertsolariekin eta mitxelenatar akordeoilariekin. **17:00etan** entziero ttikia plazan. **17:30ean** auzoen arteko desafioa frontoian. **19:30ean** buruhandien eta erraldoien kalejira, herriko akordeoilari, trikitilari, pandero jotzaile eta txistulariek osatutako fanfarrearekin batera. **20:00etan** mutxikoak dantzatzeko aukera plazan. **21:30ean** auzotarren afariak. **00:00etatik aitzinera** Belfast taldearekin musika plazan.



Joan den urtean, herriko musikariek fanfarrea sortu zuten. Aurten berriz aterako dira.





I.M. RRIKKO
IGELTSERITZA
IGELTSERITZA ETA ZURGIN LANAK
661 735 052
ARANTZA
ESTRUKTURAK - TEILATUAK - FATXADAK - ZAHAR BERRITZE LANAK



BOKATAK - PLATER KONBINATUAK - KARTA - MENUA
ongi pasa bestak!
BEREZITASUNAK Haragiak, Arrainak, Etxeko Postreak
MENU BEREZIAK Taldeak, Mendizaleak, Jaunartzeak, Otorduak
T. 948 63 40 27 - 711 739 516 | ARANTZA
restauranteburlada@hotmail.com
www.restauranteburlada.com



regina tolosa
FISIOTERAPEUTA
ongi pasa bestak!
K-STRETCH Indarra, oreka eta mugikortasuna lantzen ditugu
Ongi sentitu, konfiantza irabazi eta mugimenduan bizi!
Tel. 948 625 206 San Esteban, 17 Behea | BERA



Arantzako Dantza Luzeak ez du hutsik eginen.

ABUZTUAK 15, LARUNBATA

10:00etan diana herriko txistulariekin.
11:30ean meza. **12:00etan** Arantzako Dantza Luzea frontoian. **18:00etan** herri kirol saioa frontoian (sarrera borts euro). Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketako finala, Nafarroako Gizonezkoen Txokor Biltze Txapelketako

finala eta Nafarroako Emakumezkoen Txokor Biltze Txapelketako finala. **20:00etan** musika plazan Itzal Erromeria Taldearekin. **21:30ean** zezensuzkoa. **00:00etan** musika plazan Itzal Erromeria Taldearekin.

ABUZTUAK 16, IGANDEA

10:00etan diana herriko trikitilarekin eta pandero jotzaileekin. **10:00etan** herriko pilota txapelketako finalak: hasteko haurrenak eta ondotik helduenak. **14:00etan** elkartasun bazkaria. **17:00etan** haurren lasterketa eta merienda. **17:30ean** pilota partidua (sarrera borts euro): lehenbiziko, Bortzirietako gazteen partidua, ondotik, Ados Pilotako emakume pilotari profesionalen partidua eta bukatzeko, gizonezko pilotari afizionatuena. **20:00etan** DJ Xaibor diskofesta. **21:30ean** zezensuzkoa.



Joan den urteko bestetako pilota txapelketan, finalak jokatu zituzten pilotariak.




ARANTZAKO UDALAK BESTA ONAK OPA DIZKIZUE ARANTZAR ETA BISITARI GUZTIEI

ARANTZAKO DANTZA LUZEA

«Ia hutsetik berreskuratu genuen herriko dantza eta gaur egun bizi-bizirik dago»

XATUR LARRALDE, LUCIA IPARRAGIRRE ETA GREGORIO MITXELENA



Xatur Larralde Ibarrola, Lucia Iparragirre Taberna eta Gregorio Mitxelena Ordoki arantzarrak.

G. Pikabea ARANTZA

Hola erein, hala bildu. Hala dio erranak, eta duela 50 urte baino gehiago ereindako haziaren fruituak bistakok dira Arantzán. Horren adibide garbia da Arantzako Dantza Luzea. Lehenagokoa da dantza, baina orduan berreskuratu zuten, eta geroztik, abuztuaren 15ean hutsik egiten ez duen ekitaldia da. Hitzordu seinalatua da herritarrentzat, berezia dantzatzek edo ikusteak dien sentimendua.

Dantza noizkoa den data zehatzik ez dago, baina badira aspaldikoa dela erakusten duten seinaleak: «Badira 1900 eta gutti gehiagoko argazki zaharrak, dantzariak plazan ageri direnak. Eta bada dantzariak, orain bezala, traje zuri-gorriarekin ageri diren 1931ko bertze argazki bat». Hala dio Urdingo bordako Lucia Iparragirrek. Berarekin batera, Urdingobaitako Gregorio Mitxelena eta Petriseneko Xatur Larralde bildu ditu TTPI-TTAPAK, duela 52 urte Arantzako dantzak berreskuratu zituztenetako batzuk izan zirelako, eta gerora, ondorengo belaunaldiei dantzak erakusten bide luzea egindakoak direlako hirurak.

Haur denboran ez zuten Arantzako Dantza Luzerik ezagutu. Pentsatzekoa da gerra denboran eta ondotik, isilarazi izanzen zutela. Edozein moduz, Iparragirrek esplikatu duenez, «gerra

ondoan, arrontean ez zen gelditu izanzen, nire atta eta osaba ere dantzan ibiliak izaten baitziren eta adinagatik Francoren denboran ariko ziren».

Isilarazitako urte horiek gibelean utzita, 1974an plazaratu zuten berreskuraturako dantza. Aitzineko urtean, mutilek egin zuten lehenbiziko seinalea: «Zortzikoa, mutil dantza, txakarrankoa eta makil dantza dantzatu genituen», esplikatu du Mitxelenak. Eta ondoko urtean, neskek eta mutilek, Arantzako Dantza Luzea osorik egin zuten. Hamahiru eta hamazazpi urteko gazteak bildu ziren. Iparragirrek zehaztu duenez, «Jacinto Bergarak enpeinu handia paratu zuen dantza berreskuratzeko. Berarekin batera, Cruz Mari Bergara, Evaristo Mitxelena, Martin Ibarrola, Alfonso Larralde eta Julian Iparragirre ibili ziren guri erakusten».

Musikaren alderdiari ere forma eman zioten: «Han eta hemen» zeuden dantzen partiturak biltzeko alderdia Gregorio Mitxelenak egin zuen: «Dena puskaka, nahasia, zegoen, eta ahal nuen bezala, dena bildu eta berritik egin nuen eskuz, 1978an».

Ondoko urteak emankorrak izan ziren. «Aunitz entseatzek genuen», aitortu du Iparragirrek, eta «bertze herrietara emanaldiak egitera» joaten zirela oroitarazi du Mitxelenak. Baz-

Arantza
arropa denda | lentzeria
etxeko osagarriak
Altzate, 30 BERA
T. 948 630 136

ARANDORRELA, S.A.
T: 948 630 102
M: 633 480 563
Bidasoa, 76, 21-22 | BERA

aterpe
albergea jatetxea ostalua
T. 948 634 179 | ARANTZA | www.arantza.net

zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 630 967 w. www.zalain.info

Jauri
ELEKTRIZITATE LANAK
Enfiteformak, etxe berriak
Lantegiaren mantentze lanak
EGUZKI
PANELEN
INSTALAZIOAK
ONGI PASA BESTAK!
948 631 217 | 630 136 863
Julio Caro Baroja 6, 31780 Bera
jaurirubera@gmail.com

Guillermo LARRAÑAGA
dokorea
KIRURGIA
KARDIOBASKULARRA
FLEBOLOGIA
LINFOLOGIA
Bartzeak
Kirurgia integrala
Eliografia kardiobaskularra
Tratamendu estetikoak
Zainetako ulzerak
Gakotasun linfatikoak
M. 610 549 507
Centro Médico Bera
San Esteban, 17 | BERA

EDARI AK
ONGI PASA BESTAK!
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA
948 63 10 27 670 598 560
info@tabernaedariak.eus
www.tabernaedariak.eus



Xalupa
Arraindegia

Eguneko arraina
Itsaskiak
Izoztuak
Gazituak
Kontserbak

Kanttonberri, 3 | BERA | 948 631 575 | 694 207 129



Ansonea ostatu · jatetxea

Ongi pasa bestak!

T. 948 63 01 07 | Foruen plaza, 1 | BERA



F. LANCHAS

Akutziladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 | M: 620 172 679



Ongi pasa bestak!

ARGITU
ZERBITZU ELEKTRIKOAK

KOADRO ELEKTRIKOAK BERRITZEA
MATXURA ELEKTRIKOAK
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA
MOTOR ELEKTRIKOAK

BERA | 722 287 269 | argitustf@gmail.com



ilargi
okindegia

Ongi pasa bestak!



Enkarguak: 948 634 156 · ARANTZA



1974an Arantzako Dantza Luzea berreskuratu zutenak. LUCIA IPARRAGIRREK UTZITAKO ARGAZKIA

tandarren Biltzarra, Basauri, Deikaztelu, Zarautz, Lizarra... Taldean «ederki» ibiltzen zirela dio Mitxelenak, eta orduko «hagitz oroitzapen onak» dituztela Larralde.

Arropa bat edo berte

Gaur egun, bestetan eta jantzi zuri-gorriarekin ateratzen dira dantzatzera. Ez da, ordea, beti hola izan. «Bestetan eta erraten zutenez, udan, udako solstizioarekin lotuta, zuri-gorri ateratzen ziren, eta inauteetan berte batekin, gaur egun ibiltzen ez den traje itxuroso batekin», esplikatu du Larralde.

Arropen harira, Neska Dantzako trajea «argazkiei begiratuz eta Tuanekeo bordako Jabiera Mitxelenarekin solas eginez» berreskuratu zutela kontatu du Iparragirrek. Hori argituta, «Zuzaineko Margarita Bergarak, Goiz Argiko Maribi Apezetxeak, Petriseneko Maritxu Ibarrolak eta Seroren bordako Mari Juli Almandozek josi zituzten». Eta trajeak egiteko dirua «antzerkiak eginez bildu genuen». Bere hitzetan, «lehenbiziko argazkietan traje guziak igualak zirela ikusten da. Oraingoak ez dira hain perfektuak. Berez, gona zuriko feltro gorriak ezin dira nolanahi eta nonahi paratu eta galtzerdi zuriak ere behar dira».

Dantzaren bilakaera

Bilakaera bistakoa da. Larralderen hitzetan, «dantzak ikustera hurbiltzea aski da izan duen bilakaera ikusteko. Ia hutsetik berreskuratu genuen, eta gaur egun berte neurri bat hartu du. Osasuntsu dago eta herritarrek euren sentitzen dute»; Mitxelenarentzat «bizi-bizirik» dago.

Larralde, Mitxelena eta Iparragirreren etxeok ere eman diote segida dantzari. Larralde arreba gazteenarekin eta anaiarekin ibilia da, eta

gaur egun, «alabekin eta ilobekin» aritzen da. Ez baitu alde batera utzia: «16 urterekin hasi nintzen eta 68 urterekin oraindik segitzen dut».

Mitxelenaren kasuan, senideen artean bera bakarra animatu zen, baina urte saila egin zituen: «2006ra arte. Bitartean, hor ibili nintzen, arnasa handitua», aipatu du irri artean. Tarte horretan, «bi semeekin tokatu naiz. Egia erran, semeek ofizio guziak segitu dituzte», dio kontent.

Iparragirre, berriz, anaiarekin eta ahizparekin ibilia da eta gainera, 1974ko estreinaldi hartan, anaiarekin batean atera zen. «Hasieran, bortz edo sei bat urtez aritu nintzen. Gero, lehen ibilitakoek berriz dantzatu behar genuela eta, berriz atera nintzen bizpahiru urtez». Bere ondorengoek ere ederki segitu dute bere bidea. Alaba, semea eta bilobak dantzan aritzen dira, eta seme-alabak erakusten ere bai. Aitortu duenez, «emozio handia sortu izan dit beti herriko dantzen doinuak adituek eta dantzak ikusteak. Niretzat hagitz polita da».

Txupinazoa

Dantzak segida izan dezan, erakusten ere ibili dira, «urte azkarkiz». Kontua da eurek eta berte hainbat herritarrek egindako auzolan horri esker, belaunaldiz belaunaldi pasatu dela Arantzako Dantza Luzea. Eta hori aitortu nahi izan dute Arantzako Udalak eta besta batzordeak aurtun, bestetako txupinazoa botatzeko aukera dantza erakusleei emanez. Hantxe izanen da hirukotea, baita abuztuaren 15eko eguerdian frontoian ere, dantzan ez bada, begira. Eta bestetako gainerako egunetan ere, ez dira urruti ibiliko: «Ahalik eta hobekien ospatzen saiatuko gara». Eta hala desio diete herritarrei eta bisitariei.

ETXALARKO EGITARAUA



Aurten ere abuztuaren 15ean herriko dantzariak euren emanaldia egingen dute.

ABUZTUAK 14, ORTZIRALEA

17:00etatik aitzinera X. lasterketa herrikoia. Haur eta helduentzat lasterketa ez lehiakorra. **18:00etan** helduen lasterketa. **Ondotik** merienda. **19:45ean** agerraldi isila *Euskal Presoak Euskal Herrirat*. **20:00etan** txupinazoa, txistulariak, trikitilariak, ELUTXA txaranga, buruhandiak eta kankailuak. Xanpaina eta goxokiak banatuko dituzte. **21:30ean** herri afaria frontoian. Herri afarian eta ondotik txarangak. **00:30etik 04:00etara** dantzaldia Biziraun erromeria taldearekin.

ABUZTUAK 15, LARUNBATA

10:30ean diana gaitero, buruhandi eta kankailuekin. **12:00etan** meza txistulariekin. **12:30ean** herriko dantzarien saioa txistulari eta musikariekin. **Ondotik** eskola zaharreko estalpean hamaiketakoa dantzari eta musikarientzat. **18:00etan** herri kirolak: aizkora, harri altzatzea eta motozerrarekin erakustaldia. **20:00etatik 21:30era eta 00:00etatik 02:30era** Fan&go taldearen emanaldia. **23:00etan** su artifizialak.

ABUZTUAK 16, IGANDEA

10:00etan diana trikitilari, buruhandi eta kankailuekin. **11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara** haurrentzat joko parkea eta txu-txu trenak. **13:30ean** Asauttiki. **16:30etik 18:30era** eskalada frontoi

gibelean haur eta helduentzat.

18:00etan herriko gazteen arteko herri kirol desafioa. **20:00etatik 21:30era** Destino Sonora mariatxiak. **00:00etatik 03:30era** DJ Txingudirekin musika.

ABUZTUAK 17, ASTELEHENA

10:30ean diana txistulari, buruhandi eta kankailuekin. **11:00etan** herriko umeen XXXIX. pilota txapelketako finalak. **12:00etan** Aitor Danboriena Memoriala XV. Pilota Txapelketako finala. **13:00etan** pilotako sari banaketa. **17:00etan** XXXII. mus txapelketa. **18:30ean** herriko trikitilarien saioa. **Ondotik** trikitilariarentzat merienda eskola zaharretan. **19:30etik 21:00etara** Saltoka Euskal Musika eta dantza tradizionala. **Ondotik** larrain dantza. **20:00etan** museko sari banaketa. **00:00etatik 03:00era** herriko musikariak.

ABUZTUAK 18, ASTEARTEA

10:30ean diana Elutxa txaranga, buruhandi eta kankailuekin. **11:30ean** bote luze. **14:00etan** bertso bazkaria Larraburuan. Denentzat irekia. Sebastian Lizaso eta Amaia Agirre bertsolariak eta Joseba Olagarai gai jartzailea. **14:00etan** Asaua ermitako zelaian. Plazatik Elutxa txarangarekin abiatuko dira. **16:30etik 18:30era** Jokai jokoak umeentzat eta helduentzat. **20:00etatik 22:00etara** Trikidantz taldea. **23:30etik 03:30era** DJ Endara.

Iturruta, 4 - ETXALAR
M. 634 77 99 78
www.etxalarescaperoom.com
info@etxalarescaperoom.com

USOA kooperatiba *Ongi pasa herriko bestak!*

948 635 214 605 631 244 ETXALAR

Ongi pasa bestak!

Maira
Ogigintza ekologikoa

Gure harrizko errotan xehetutako Nafarroa eta Arabako zereal ekologikoekin egindako ogiak, opiltxoak eta pastak. Egurrezko labearen erreak.

Garia, espelta, zekale, hazidunak, gari beltz ogiak...

Bertan erikargu bidez: **620 053 512** Astearretan KIMETZ-en Ortziarretan SUSTRAI eta BIDAIZI-en

Ongi pasa bestak!

Menu berezia
Bestetako menua
Karta
Pintxoak
Razioak

BAR-ASADOR BASQUE
OSTATU-ERRETEGIA

948 635 153
Iturruta, 3 ETXALAR

*Etxalarko Udala
herriar eta bisitari gurtzei
beste onak opa diezkieke*

NEUROLOGIAN eta GERIATRIAN espezializatua

FISIOTERAPIA
· Uxue Iturria · *Ongi pasa bestak!*

Etkez etxeko zerbitzua

623 980 540 ■ fisio.iturria@gmail.com ■ @fisio.iturria

IRIBARREN
Fabrikazioa | Salmenta | Instalazioa

Energia aurrezteko leihorik egokiena!
Passivhaus-Etxeentzako leihoak



Besta zoriontsuak opa dizkizuegu!

Antsolokueta, 28
31760 ETXALAR
T./F. 948 635 071
info@ventanasiribarren.com

ONGIPASA BESTAK!

ETXALAR
HOTEL-VENTA

- 40 logela aire girotuarekin
- Ostatu-jatetxea: parrilla, plater konbinatuak eta errazioak
- AZKUA erabilera anitzeko gela: kontzertuak emateko, konferentziak emateko... mota guztietako ekitaldiak
- 200 ibilgailuentzako parking pribatua




N-121-A • ETXALAR | T. 948 635 000
www.etxalar.com | info@etxalar.com

«Etxalarko erraldoi konpartsak, txarangarekin, giro berezia sortzen du»

MARKEL ETXARTE LEIZA ETXALARKO ERRALDOIEN KONPARTSAKO KIDEA

Aitor AROTZENA ETXALAR

Herriko bestak hasteko gogotsu dago Markel Etxarte Leiza, 23 urteko etxalartarra. Baina erraldoien konpartsako kide, pilotari eta Baratzuri Beltzak erromeria taldeko tronpeta jotzailea izanik, besta eta lana "uztartu" beharko ditu. «Erraldoiak egunero ateratzen gara –dio– 14ko txupinazoarekin hasten gara, 15eko egun handian ere... 16an, berriz, umeen eguna delakoz, hutsa erraldoi tikiak ateratzen dira eta gu, handiok, ez gara ateratzen, deskantso; eta 17an eta 18an berriz ateratzen gara. Egun batzuetan bertzeetan baino gehixeago kostatzen da, baina hor egonen gara. Orain zortzi bat lagun gara erraldoi konpartsan eta, horretaz aparte, buhhandiekin ateratzen diren haurrak».

Erraldoi bereziak dira Etxalarkoak, umoretsuak, eta azken urteetan herriz herri egin diren topaketetan arrakasta handia izan dutenak. Etxartek dioenez, «besoak altxatu ahal izate horrek badu zerikusia, baina, batez ere, elkarrekin dugun eta bertzeekin sortzen dugun giroa azpimarratuko nituzke. Bertze erraldoiek beraiek dantza egiten dituzte, baina gu txarangarekin ateratzen gara eta txaranga bat aditzen baduzu, horrekin dantzatu ahal izatea...

Niri, behinik behin, ikusteko eta dantzatzeko gogo eta poztasun hori sortzen dit».

Kirolari ere

Baina kirolean ere fuerte ibiltzen da Etxalarko gaztea: «Mendian ibiltzen naiz lasterka, bai. Uda aldean, beroarekin, bizikletan gehiago ibiltzen naiz, baina besten ondotik, Sarako Kontrabandisten Lasterketa ere prestatzen hasi beharko dugu. Joan den urtean joan ginen eta nahikoa lanekin bukatu genuen, ederki sufrituta. Zazpi kilometro motza zela ustetan joan eta aski luzeak suertatu ziren! Baina bestetan ez dut horretan pentsatuko, gero gerokoak eta fuera! Pilotan ere aritzen naiz, eskuz, eta bestetako txapelketan parte hartzen ari naiz. Ligaxkan ari gara eta 17an jokatuiko den finalera ailegatzeko esperantzarekin». Kuadrillako batzuk ere ari dira Mendialdeko Bote Luze Txapelketan, baina «nik ez dut probatu», dio.

Asau eguna izaten da Etxalarko bestetako ezagunena eta Etxarterentzat «besta guztietako egunik onena da niretako asau eguna, ez dut inoiz hutsik egiten. Goiz goizetik hasten gara erraldoiak ibiltzen, gosaritikan, txarangarekin goiz guzia, eguerdira arte, gero erraldoiak

bai
partekatutako mahaiak

HERRIKO OKINDEGIA



Ogi naturalak, ama oreaz eginak:
Espelta | Garia | Zekalea | Arto ogia

Egunero irekia: 06:00 > 13:00
T. 627 033 975 • ETXALAR

AINHOA ALTZUGUREN MITXELENA
ABOKATUA

Dibortzioak
Kontratua
Arazo administratiboak

ZERBITZUA EUSKARAZ

BERA | M. 630 972 189
ainhoaaltzuguren@gmail.com



Etxalarko erraldioen konpartsako kideak. Eskuinetik lehena da, Markel Etxarte.

uzten ditugu eta asaura joate hori, kristoren gozada! Txupinazo eguna ere polita izaten da, jendea bestarako gogoekin dago, herri afaria izaten da eta giro polita izaten da. Baina aukeran, Asau Eguna, egun guziko besta delakoz».

Baratzuri Beltzak taldean tronpeta

Musika ere gogoko du eta Baratzuri Beltzak taldeko tronpeta jotzailea da. «Berako musika bandan ere jotzen dut –aipatu digu–, baina erromeria talde batean nire lehen esperientzia da, diferentea da. Gustura ari naiz. Herriko bestetan ere jotzeko aukera izanen dugu, 17an. Herriko musikariek osatutako taldea gara. Irune eta Itsaso Elizagoien ahizpek Urritzokietako bestetan jo zuten kontzertu ttiki bat eta hura pixka bat zabaltzeko edo, niri galdetu zidaten besta batean eta bestetan, nola ez, dudarik gabe baiezkoa

eman nien. Konpromisoa hartu nuen eta hor sartu nintzen eta jende gehiago elkartzen joan gara. Tartean-tartean egin ditugu emanaldiak, Beasaingo Garin auzoan, Oñatiko Madalenen, orain Etxalar-ko bestetan, Sarako Kontrabandisten lasterketan aurten Etxalar eta Ezpeleta gara herri gonbidatuak eta lasterka egitera ez ezik, tronpeta jotzera ere agertu beharko dugu! Irailean Beran jo behar dugu, urrian Zubietan Euskararen Egunean... baditugu emanaldi batzuk». Eta herriko bestetara zein musika talde ekartzea gustatuko litzaizuke? «Aukeran emanda, EH Sukarra». Abuztu erdialdean bertze hainbat herritan izaten dira bestak, baina ez da inoiz herritik kanpora joan eta ez du horretarako tentaziorik ere izan: «Nahiko besta da herrian, bertze lekuetara joateko asmorik ez dugu!».

BESTA ONAK PASA! GORA AMABIRJINAK!

Plazako denda
948 635 026

ongi pasa bestak !

HARITZPE
ETXALARKO OKINDEGIA

T. 637 20 64 62

LARRAZ

NAFARRDARAKO
ARRAUTZA KANPERDIAK
HUYEROS DE GALLINAS
CAMESAS

**%100 BERTAKOA
%100 LIBREA
%100 NATURALA
%100 BENETAKOA**

**larraz@euskaber.eus
T. 609 43 35 87**

Ongi pasa bestak!

LIDERA
HORTZ KLINIKA

INGURUNE BERRIA ZURE IRRIARENTZAT

Ortodontzia eta odontopediatria. PADI
Errehabilitazio Neuro-Oklusala / Dentosofia
Ahoko kirurgia eta implantologia | Plasma
Endodontzia | Hortzetako estetika
Odontologia orokorra eta hortz protesia | Etab.

Astelehenetik ortzegunera: **08:00-13:00 | 15:00-20:00** | **LESACA**
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklina.es
www.lidera.hortzklina.es

Ortziraiek: **08:00-18:00**
Larunbetetan irekia: **08:00-13:00**

GOZATU SANFERMINAK!

ETXALAR

HERRIKO OSTATUA

BESTETAKO MENUA 2026

ELKARBANATZEKO
Askotariko frijituak
Enbutidoa
Bokeroiak
48€

AUKERATZEKO
Entrekota
Bildots txuletilak
Ahate magreta
Txipiroiak
Bakailoa panadera patata
eta piperrekin
ongi pasa bestak!

Postreak, edariak eta kafea

M. 646 95 12 20- Andutzeta, 15 - ETXALAR

ONGI
PASA
BESTAK

Orabidea • 31795 Lekaroz • T 948 580 400

Oharritx Auzoa z/g - LÉKAROZ
T. 948 452 143 • 948 452 449
info@harri-lan.com
www.harri-lan.comEDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGUHARRI LAN, S.L.
ESTRUTURA EN PIEDRAJOSEPHINE'S
20 ENGLISH 13
SALTUROngi
pasa
bestak!

Pedro Asular kanika, 2. Erlozondo



IRAKASLE NATIBOA

2026-2027 MATRIKULA IREKITA

Lehen Hezkuntza, DBH,
Batzilergoa (B1, B2) eta Helduak

Christina Irigoyen ☎ 637 176 572 ✉ josephinesenglish@gmail.com

KORTARIKO
BORDA
BALTARROZ
PRODUKTURA

ONGI PASA BESTAK!

Orabidea auzoa 18-19 km.
Tel. (0034) 948 580 427
(0034) 638 357 517

LEKAROZKO EGITARAU

ABUZTUAK 20,
ORTZEGUNA18:00etan haurren pilota partidak eta
20:00etan besta hasierako suziria.
Mahai muntaketa eta 21:30ean Baztan
zopak. Ondotik dantzaldia Beñatekin.ABUZTUAK 21,
ORTZIRALEA10:00etan dianak. 14:00etan gazte
bazkaria eta 17:00etan gazte jokoak.
19:00etan dantzaldia Aitorrekin eta
21:00etan ezila jotzea. 21:30ean
mutil dantzak, gaita eta larrain dantza
eta 00:00etan Andoni Ollokiegi.
02:00etan DJ Fifi eta Fefa.

Sagar dantzariak

ABUZTUAK 22,
LARUNBATA10:00etan dianak eta 11:00etan mahai
muntaketa. 12:00etan futbol partida
institutoko zelaian eta 14:00etan
herri bazkaria. Dantzaldia Nahia eta
Jasonerekin eta 21:30ean mutil
dantzak, gaita eta larrain dantza.
00:00etan, Bidean erromeria, eta
bestarekin segitzeko DJ Üzkuluz.ABUZTUAK 23,
IGANDEA10:00etan dianak eta 11:00etan
puzgarriak. 14:00etan haurren
bazkaria. 16:30ean mus zimizte
eta 17:00etan mozorro txapelketa.
18:00etan txokolatea eta 19:00etan

Soletikan erromeriarekin dantzaldia.

20:00etan patata tortilla txapelketa
eta 21:00etan ezila jotzea. 21:30ean
mutil dantzak, gaita eta larrain dantza
eta 23:00etan, berriz ere, Soletikan
erromeriarekin dantzaldia.ABUZTUAK 24,
ASTELEHENA10:00etan dianak eta 11:00etan
meza nagusia. 12:00etan dantza
herrikoiak, mutil dantza, gaita eta
larrain dantza herriko plazan. Ondotik
luntx herrikoia. 18:30ean A Toda
Madre mariatxiek dantzaldia plazan
eta 20:00etan triapak betetzeko xingar
jate herrikoia. 21:30ean mutil dantzak,
gaita eta larrain dantza eta 23:00etatik
aitzinerara, beste agurra errateko gaixoa
ni eta besten akabaila.VENTA
PEIO
GEBIAGO ENAREN DEKUBERA (administratzaia)
31780 Bera
IBARRIN BEKOIA
31790 Bera - 20305 IrupDANTXARINEA
31732 Urdax
LUZAIDE
31640 LuzaideEGUNERO IREKIA,
ASTELEHENETIK
IGANDERA ARTE

Landibar

TEL. 902 210 800 / www.venta-peio.com

«Mutilek dantzatzun zuten bakarrik eta emakumeak ere hasi ginen Lekarozen»

PAZITA ITURRIRIA GOÑI LEKAROZKO HERRITARRA



Pazita Iturriria Goñi. ARGAZKIA: UTZITAKOA

Leire Mihura LEKAROZ

86 urteko lekaroztarra da Pazita Iturriria Goñi. Etxeko egongelan zegoen deitu diogunean: «Plaza pareko etxe handia da gurea». Leihotik begiratu eta begiek topo egiten diote plazarekin, hor baitu parez pare. Hutsik dago plaza uztaileko ortzirale goiz batean, baina herriko bestetan, ordea, hori izanen da herriarren bilkura lekua. Telefonoaren bertze aldean, beharbada, etxeko egongelatik plazara begira ariko zen lehengo garaiez oroitzen hasi denean. «Etxean 14 haurride ginen», kontatu digu eta oroitzapen kuttunenak gogora ekarri ditu: «A ze besta egunak izaten genituen, bezperan hasten genituen; etxean Baztan zopak, txuri ta beltza, hori seguru, eta magra ondoan». Ongi oroitzen da afaldu ondotik ostatura joaten zirela, anaiak eta amak nola erraten zien: «Etorri zaitezte tenorean, bihar meza nagusia dela 11:00etan eta jeiki behar duzuela». Eta aitak biharamunean maindiriak eta denak goratzen zizkiela: «Jeiki zaitezte!».

Garai hartan, meza «arras inportantea» zela erran digu: «Ikustekoa zen jendea nola joaten zen, fin-fin

apaindua, arropa estreinatu gabeekin batzuetan». Ongi oroitzen da eguneko ordenaz, mezatik atera eta mutil dantzak izaten zirela plazan. «Badakizu zertaz aritzen ziren bakarrik mutilak dantzaz, ez? Emakumeak etxean egon beharra zirelako bazkaria prestatzen». Halere, emozio handiz, duela 40 urte baino gehiago, Lekarozen emakumezkoak ere plazan dantzaz hasi zirela erran digu. Eta lehen aldi hura xehetasun guziekin kontatu digu: «Ni Oronozko eskolara joaten nintzen eta han ikasi nuen *Los pastores de Bilbao* izeneko dantza bat, herrian 14 laguneko taldea bildu eta erakutsi nien, hanka bat goiti eta bertzea beheiti. Nire koinataren lehengusu batek aurrekua ere erakutsi zidan eta nik lagunei. Maurizio etortzen zen mutil dantzak entseatzera eta hark sagar dantza erakutsi zigun. Eguna ailegatu eta inork ez zekien deus eta, a ze emozioa denen aitzinean dantzatu genuenean». Eta ez hori bakarrik: «Boneta pasatu genuen eta bildutako diruarekin Hondarribira egin genuen egun pasa». Orduetik urtero egiten dira dantzak eta Iturririak ez du hutsik egiten, plazara ateratzen da urtero.

ANZABAL
INMOBILIARIA
ZURICH ASEGURUAK

www.anzabal.com Santiago, 15 ELIZONDO
☎ +34 948 580 804

MARI TX

⚡ Ingeniaritza elektrikoa ⚡ Boletín industria
⚡ Proiektu elektrikoak ⚡ Instalazio elektrikoak

☎ 636 617 450 | Legia, 23 BERA

PLATAFORMAS BIDASOA

GURE PLATAFORMAK
DIESEL ETA ELEKTRIKOAK
Carroola eta entrega zure beharretara egokitua

8 m - 10 m 12 m - 16 m
12 m - 18 m 12 m - 18 m
18 m / 8 karneta

☎ 639 103 305
✉ plataformasbidasoa@gmail.com
📍 Alkalaga Pol. Ziobi, 15

ERREKA-ALDE zurgingindia

Zurgin lanak orokorrean
Teilatuak • Sukaldeak • Armairu enpotratuak

Tfnoa: 948 592 070 • ORNOZ-MUGAIRI



T. 948 592 339 *ongi pasa bestak!*
Poli. indus. Zozaia – Errota, Pab.1 – Zozaia-Ornoz

GEREZIBELTZ

GAS INDUSTRIALA
SOLDEATZEKO MAKINA
EDARIAK ETA JAKIAK



635 371 498 (Eneko)
948 592 027

Balengorri pabiloia 17
Ornoz-Mugaire
31780 Baztan [Na]

Josenea ZONA AUTO MUGAIRE



+34 948 599 090
N-121-B erreplidea, Ornoz-Mugaire
www.josenea.es

BAR PITU OSTATUA

ORNOZ-MUGAIRI - T. 948592472
Bertikoa Jaurerriaren parean



Asteburuan eta Amabirjina egunean
eguerdian MENU BEREZIA

Gauean ogitaratekoak,
plater konbinatuak...

ongi pasa bestak!



ORNOZ-MUGAIRIKO EGITARAUA



Mozorro dibertigarriak aurkeztu zituzten iazko bestetan. UTZITAKOA

ABUZTUAK 13, ORTZEGUNA

12:00etan txupinazoa, **ondotik** kalejira herrian barna. **14:00etan** haurren bazkaria frontoian. **15:00etatik** **18:00etara** haurrendako puzgarriak, jokoak eta aurpegi pintaketa frontoian, **ondotik** merienda. **16:30ean** musa Gaztelune elkartean. **19:00etan** erraldioen itzulia herrian barna frontoitik hasita. **21:00etan** baztan zopak eta **00:00etan** dantzaldia plazan Iraultza erromeriarekin.

ABUZTUAK 14, ORTZIRALEA

11:00etan partxis lehiaketa Gaztelune elkartean. **14:30ean** gazte bazkaria mozorrotuak Azkazkorronean. **17:00etan** herriari itzulia Ilargi txarangarekin eta Debalde.com herriko fanfarrearen itzulia. **20:00etan** mozorro lehiaketa plazan. **23:00etan** Koiputze Gauda: Puntu ta koma, Sedientos de Cumbia eta DJ Xuri ta Beltz.

ABUZTUAK 15, LARUNBATA

11:00etan meza nagusia, **ondotik** erraldioen itzulia. **12:00etan** herriko dantzarien erakusketa frontoian eta **13:00etan** luntxa. **17:00etan** pala finalak. **20:00etan** Amatitan de Jalisco mariatxiak plazan. **22:00etan** bingo musikatua plazan, **ondotik** dantzaldia DJ Endararekin.

ABUZTUAK 16, IGANDEA

11:00etan Txarutako pilota partidak. **14:00etan** zikiroa frontoian, **ondotik** bingo herrikoia. **16:30ean** mahai ingurua Joxe Angel akordeoilariak alaitua. **19:00etan** herri kirolak. **21:00etan** postre lehiaketa plazan. **00:00etan** pintxaldi libreia.



Herriar guziak elkartuta giro paregabea izanen dute bertze urte batez. UTZITAKOA

«Alkatea icebergaren punta baino ez da, ikusten ez den lantaldea du gibelean»

GAIZKA OTEIZA MIGELTORENA ORONÓZ-MUGAIRIKO ALKATEA

R. Oskariz

Aitari erreleboa hartuz, joan den urtean hartu zuen herriko alkatez Gaizka Oteiza oronoztarrek: «Baztango dinamika aunitz gustatzen zait eta Batzar Nagusiaren eta alkatearen figura garrantzitsuak iruditzen zaizkit. Horiei esker, herri batzarren bitartez, herriak ere hitza du udalean, alderdi politikoei bezain bertz. Arras sistema horizontala da. Hortaz, ez dakit militantziagatik edo etikagatik, nik ere probatu nahi nuen. Uste dut herritar guziok pasatu beharko genukeela horretatik».

Aitaren lana ikusi badu ere, «gauza bat ikustea da eta bertzea egitea. Zenbait aferekin erraza ematen dute, baina bere denbora behar dute. Beti egon behar duzu erne herrian zerbait pasatzen bada. Baina alde ona ere badu: ulertzen duzu nola funtzionatzen duen komunalen gestioak, udalak, herriak, auzolanak... polita da».

«Herritarren eskaerak udalera eramatea» da bere lan nagusia, «baita Batzar Nagusian parte hartzea eta herriko uraren gestioa ere, burohausterik handiena herri guzietan».

Hala ere, «beti erraten dut nire izena dagoela alkate bezala, baina alkatea ez dela deus bere lan taldea gabe: administraria, kontuak eramaten dituen, frontoia kudeatzen laguntzen duena, uren aferaz arduratzen direnak, auzolanak antolatzen dituztenak... alkatea icebergaren punta baino ez da, ikusten ez den lantalde handia baita gibelean. Herriko gauzak denon artean egitean, errazagoa da dena, eta aunitz eskertzen da herritarren borondatea lan horiek egiteko orduan».

Azaldu duenez, «gaur egun Oronozen arazo handiena etxebizitzarena da. Baina ez etxebizitzak falta direlako, baizik eta horien gestioa negargarria delako. Nafarroako Gobernuak etxebizitza huts pila bat ditu herrian, lehenagoko Kamineroen Etxean eta sarrerako atea guziz



lax hartu zuen alkatez Oteizak. UTZITAKOAK

hetsia duen bertze eraikin batean. Gainera, Guardia Zibilak ditugu gobernuko etxeetan bizitzen, eta beti erran dugu estatuko polizia Nafarroako Gobernuko etxeetan bizitzea lekuz kanpo ikusten dugula, ez baita haien eremua».

Horrez gain, agintaldia akitu baino lehen lan ugari dituzte: «frontoian obra ttiki batzuk egin behar ditugu, baita herritarrek eskatzen dizkiguten bideak konpondu eta mantendu ere. Orain auzolana egingen dugu, besten aitzinetik dena txukuntzeko».

Herriatik eta herriarendako

Oronozko bestak gustukoak ditu eta dioenez, «herritarrek elkartzean talde polita osatzen dugu gazte eta helduen artean, eta gure arteko harreman ona nabarmenduko nuke. Gainera, bestak herritarrendako egiten ditugu, ez pentsatuz talde bereziren bat ekarriko dugula jende gehiago etortzeko. Kanpotik etortzen dena ongietorria izanen da, baina herriko bestak herrikoendako direla uste dut, hori da bere esentzia».

Etorkizunera begira, «oporrak disfrutatu nahi ditut, kirola egin, bestak ongi pasatu eta lasai egon. Bizitza bizi, lau egun dira eta bi omen lainotsu!».

Miren Gortari Sein
ILEAPAINDEGIA
ONGI PASA BESTAK!!
Martín Urrutia - ORONÓZ-MUGAIRI - T. 948 59 23 10

OTEIZA
ARKITEKTOKAK
665 71 56 96
943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com

oteizaarquitectos
Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Bartan)
Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

Carlos Garaikoetxea Etxenike
ABOKATUA
DIBORTZIOAK | HERENTZIAK
ALOKAIRUAK | ALKOHOLEMIAK
T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

USTARROZ
DISTRIBUCIONES
Ongi pasa Bestak!!
Sagealde, 19
• 948 59 20 12 • 609 38 58 04 •
Oronoz - Mugairi

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA
EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI
MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER
KONBINATUAK
zubindojatetxea.com | T. 948 625 472 | Alaita karrika, BERA

3Hiru Home
Ongi pasa bestak!
943 930 025 | Prudencia Arbidu, 2 • IRUIN | www.3hiruhome.com

Desguaces
Tafalla
Nola kendu ginetik zure kotxe zaharra?
1. Deitu 948 702 730 telefonora
2. Datuak bidali Autoaren argazkia, dokumentazioa, jabearen NA edo enpresako IFZ
3. Kotxea hartu eta ordainketa egiten dizugu
Eskaerak egiteko telefonoa: 747 755 324
Lizarra errepidea, 31. km, 6, 31300 Tafalla, Nafarroa



Etorri gure
garagardo goxoak
dastatzera eta
etxera ere eramán
ditzazkezu.

Kanika Nagusia 1 - Errotindoa etxea
31715 AMAIUR (Nafarroa) - 634 432 253




650 663 006 | manzanas@manzanaskisua.com

WWW.HARABI.EUS

— EUSKAL ARDOPU MARKA —

HARA BI
ni bai eta bertan ni

BERTAKOA, ORGANIKOA
ETA EUSKALDUNA!

ITSASUA, UNAI ETA BERTAN BESTA TRONBUTSUA OPU DUTITUETE



Desinsektazioak
Arratoi hiltzeak
Desinfekzioak
Egur tratamenduak
Hegaztien kontrola

Ongi pasa bestak!

T. 948 625 597 | Zalaín, 42 B | BERA



ONGI PASA
BESTAK!

Bainugelak · Sukaldeak · Pladur lanak
Fatxadak · Teilatuak

rekalde.harginak@telefonica.net
669 057 769
AMAIUR



Ongi
pasa bestak!



RCA 480 30V
RCA 480 30V PLUS

EGUR-PROZESADOREA  **TASFEM**
ORAIN HAUNDIAGOIA ETA AZKARRAGOIA www.tasfem.com

laurita@arozberri.com - Pol. Zaldubia NA-8307, 0,8 km - IFURITA
Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - www.arozberri.com

AMAIURKO EGITARAUA



Giro ederra izan zuten joan den urteko zopetan. UTZITAKOIA

ABUZTUAK 13, ORTZEGUNA

20:00etan suziriak eta ezila jotzea,
ondotik Kuxkuxtu txaranga herrian
barna. **21:00etan** baztan zopak
Kuxkuxtuk alaitua. **01:00etan** gaupasa
Olgetan taldearekin.

ABUZTUAK 14, ORTZIRALEA

12:00etan auzolana eta **14:00etan**
gazte bazkaria. **17:00etan** bingoa eta
18:30ean bertso poteoa Unai Agirre
eta Nerea Elustondorekin. **20:30ean**
mutxikoak, mutil dantzak, gaita eta
larrain dantza. **22:00etan** dantzaldia
Bide Batez taldearekin eta sorpresa
pijama hoberenarendako, **ondotik**
pintxaldi irekia.

ABUZTUAK 15, LARUNBATA


10:00etan Baztan Bidasoko XXII. ardi
erakusketa eta lehiaketa, ardi gasna
lehiaketa eta artisauen erakusketa.
Burguete, Breton, Comtois eta Jaka
Nafarra arrazako zaldien erakusketa
eta Piriniar, Salers eta Limousin
behien erakusketa, trikitilariak alaitua.
10:30ean meza, **ondotik** Gaztelu
Taldearen emanaldia elizan. **13:30ean**
sari banaketa. **17:30ean** artzain zakur
desfilea trikitilariak eta **18:00etan**
L. Artzain Zakur Txapelketa, Patxi
Etxeberriaren XXI. Memoriala. **20:30ean**
Matraka eletrotzaranga herrian barna.
23:00etan Iratzar taldea eta DJ Fifi ea
Fefa plazan.

ABUZTUAK 16, IGANDEA

11:00etan haurren esku pilotako
finalak. **12:00etan** haurren jokoak
plazan. **13:30ean** haurren bazkaria
elkartean. **16:00etan** haurrendako
puzgarriak eta jokoak frontoian.
16:30ean mus tximista eta **19:00etan**
txokolate hartzea plazan. **19:30ean**
kantaldia Briliak taldearekin.
21:00etan sardina eta txistor jatea.
21:30ean mutil dantzak, mutxikoak,
gaita eta larrain dantza.

ABUZTUAK 17, ASTELEHENA

11:00etan erraldoiak herrian barna.
12:30ean XXIII. Boneta jaurtiketa
txapelketa. **14:00etan** zikiro jatea
Beñatek alaitua. **00:00etan** gaupasa DJ
Txingudirekin plazan.



ZUGARRAMURDIKO EGITARAUA



Giro ederrean herriko ostatueta barna. UTZITAKOA

AGORRILAK 14, ORTZIRALEA

10:00etan besta hasierako suziria eta eskea herri guzian barna, musikaz alaiturik. **18:00etan** joko besta plazan eta **19:30ean** Eztanda txaranga.

22:00etan piperrada jatea plazan eta **23:00etan** dantzaldia Fan & Go erromeriarekin. **Ondotik**, DJ Axolot Selektia.

AGORRILAK 15, LARUNBATA

12:30ean meza nagusia eta **ondotik**, Uztaritzeko Izartxo Dantza Taldearen emanaldia plazan, Herriko Etxeak aperitiboa eskainiko du bitartean.

17:00etan bote luze partida frontoian eta **18:00etan** herri kirolak plazan.

20:00etan Kiki Bordatxo. **Ondotik**, behin ilunduta, erromeriarekin dantzaldia eta DJ Xorta.

AGORRILAK 16, IGANDEA

10:00etan artisau azoka Elizargietetan, **11:00etan** IV. Speedshear Zugarramurdiko bildots ile mozte txapelketa, herriko plazan. **17:00etan** bertso poteoa herrian barna Sarangak alaiturik, Maddi Ane Txoperena eta Maialen Lujanbioren eskutik. Bitartean, **16:30etik 20:00etara bitarte** haurrendako jokoak eta puzgarriak frontoian. **20:00etan** Joselu Anaiekin dantzaldia.

AGORRILAK 17, ASTELEHENA

09:00etan plater tiroketa Alkurruntzen.

10:00etan piperrada eta zikiroko haragia prestatzea Akelarrenean.

12:00etan adinekoendako meza eta, bitartean, aperitifa ere bai, eta hura animatzeko Txoborro mago poteoa.

14:00etan adinekoendako bazkaria Azketan. **16:00etan** mus txapelketa plazan eta **19:00etan** mariatxiak.

21:30ean kantu afari herrikoia plazan herriko trikitilarien laguntzaz eta **ondotik** jokoak txosnan.

AGORRILAK 18, ASTEARTEA

08:00etan zikiro prestatzea lezean.

12:00etan Joselontxos txarangak, Benta Zaharreko Mutil Alaiak eta gaiteroek animatuta itzulia ostatueta barna. **14:30ean** zikiro jatea lezean, txarangak alaiturik. **19:00etan** larrain dantza eta mutxikoak plazan. **20:30etik aitzinera**, Elektrokela elektrotxaranga, horren segidan Eztitan erromeria eta **ondotik** DJ Infernu. Bestak finitzeko, **00:00etan gaixoa ni** plazan.

AGORRILAK 19, ASTEAZKENA

16:00etan plater garbitzea Akelarrenean. **Ondotik** zintzur bustitzea.

benta
Antton

ONGI PASA BESTAKI

0034 948 599 161 - ZUGARRAMURDI

Faustino ETXABE tailerrak

Autoen konponketa

Besta on batzuk pasa!

☎ 948 599 038 ZUGARRAMURDI

KATTALIN
JATETXEA

Ongi pasa bestaki!

Lapiztegia, 6
ZUGARRAMURDI

T. 948 599 146 · 948 599 009

zeramikaren
Benta
venta du carrelage

asteartetik ostirala arte:

09:00-12:30 / 14:00-18:30

larunbata:

09:00-12:30 / 13:30-18:00

ongi pasa bestaki!

Lori venta

31710 | Zugarramurdi

Tel.: 00 34 948 59 90 24

Mug.: 0033 615 11 52 23

info@ventaducarrelage.com

www.ventaducarrelage.com



«Bestak baino besta ttikiak ditut maiteago, guretako eginak daudelako»

MIREN ZUBILLAGA ANSALAS ZUGARRAMURDIKO GAZTEA



Miren Zubillaga Ansalas. ARGAZKIA: UTZITAKOA

Leire Mihura ZUGARRAMURDI

Deitu diogu eta etxeko ostatuan lanean dabilela erran digu Miren Zubillaga Ansalasek (2006). Zugarramurdikoa da bera eta bere familia ia osoa ere bai. Herrian bi ostatu dituzte; Ansalas herriko plazan eta Azketa herri beheitian, frontoiari lotuta: pareta paretarekin. Hala, «goiti eta beheiti» ibiltzen dela dio: «Lana izan, badugu».

Zugarramurdiko bestak izanen dituzte hemendik gutira eta lan gehiago izanen dute oraino, bide batez, «gustuko» dituela dio, baina «niretako lan egunak dira bestak baino gehiago». Eta lanez gainezka badaude ere, tarte bat eskaini digu Zubillagak; herriko eguneroko martxaz, bestaz eta gehiagoz ere aritu zaigu solasean.

Zugarramurdikoa da bera; «hemen sortua» eta bere hitzetan, «zugarramurdiarra» gainera: «Beti sentitu izan naiz hemengoa, niretzat Zugarramurdikoa izatea bertako ohiturez, jendeaz eta herriaz harro egotea da». Harro dago herriaz, baita «herri giroaz» ere: «Herri ttikia izanik, denok ezagutzen dugu elkar, eta beti dago edozertan laguntzeko prest dagoen norbait». Kontrara, txanponaren bertze aldeari begiratuta, herri ttikia

izanik, hutsuneren bat ere badagoe, la adierazi du Zubillagak, bere uste-tan garraio publikoak huts egiten duela iritzita: «Batez ere, faltan sumatzen dut herriatik ateratzeko garraio aukera da. Herri ttikia izateko, ekin-tza anitz egiten ditugu urtean osoan eta aski gustura bizi naiz hemen. Hala ere, Iruñera edo bertze leku batzuetara joatea ez da beti erraza izaten, batez ere, gidabaimenik ez duten gazteendako edo mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonendako».

Oro har, herri «bizia» da Zugarramurdi eta mugituak dira herritarrak, tartean, Zubillaga. Herriko kontuetan mugitzea gustatzen zaio eta erran digunez, «kostatzen ez zaion zerbait da» herriatik eta herriarendako lanean ibiltzea: «Alaia, langilea eta saltsa guztietan sartzea gustatzen zaion horietakoa naizela erranen nuke. Beti gustatu izan zait gauzak antolatzea eta ahal dudanetan herrian laguntzea. Horregatik, gazte komisioko kidea naiz eta ilusio handiz parte hartzen dut antolatzen ditugun jardueretan».

«Denerako eta denendako»

Zaindu maite duzun hori dio Ruper Ordorikak kantuan eta Zubillagak

ere, bide beretik, kantatu ez, baina egin egiten du. Lanaz aparte, «denerako eta denendako» denbora ateratzen saiatzen baita: «Gehien maite dudana lagunekin eta familiarekin denbora pasatzea da. Horrez gain, mendira joatea ere anitz gusatzzen zait, eta ahal dudanetan herrian aktibo egotea ere bai». Bide-nabar, besta egunetan ere denerako atera ohi du denbora tarte bat: «Goiz-goizetik lanean aritzen naiz normalean, hori du jatetxean lan egiteak. Denak bezala, bere alde onak eta txarrak ditu, baina akitutakoan, indarrak gelditzen bazaizkit, lagunekin elkartu eta herriko besta giroaz disfrutatzen dut».

Aurtengoei begira

Aurtengoei begira, prestaketa, oro-korreen, «ongi», doala aitzindu digu Zubillagak, baina oraino zer egin ere gelditzen dela dio: «Gazteak buru-belarri lanean gabiltza dena prestatzen, denok bestak ahalik eta hobekien pasatu eta disfrutatzeke». Eta berak besta giroan baino gehia-

go lanean igaroko ditu egunak: «Batez ere, behar den lekuan laguntzen arituko naiz, baina beti ateratzen da tarte ttiki bat herriko bestetaz pitta bat gozatzeko». Herriko besta guzietan beren ohitura bereziak eta Zubillagaren ustetan, «dezetatik plazara egiten den igoera» da haien bereizgarri, hortaz, «ez litzateke sekula galdu behar».

Laburbilduz, lana bestetan eta ordainsaria besta ttikietan, horrelaxe azaldu digu berak eta motibata agertu da: «Errebestak ditut maiteago. Batez ere, bestetan zikiroa dela eta, herrikook egin behar izaten baitugu, jende aunitz hurbiltzen baita. Besta ttikiak, aldiz, guretako eginak dira; herriko jende guztia ateratzen gara besta egitera eta giro aski polita izaten dugu».

Bestak zein besta ttikiak alde batera utzi eta bere etorkizuneko helburuez galdetu diogu. Zalantza guti izan ditu eta fite erantzun digu: «Ikasketak finitu eta hortan lanean aritu. Epe luzeagora, etxera bueltatu eta etxeko negozioarekin segitu».



Zugarramurdiarrak aurtengo Herri Haitadan, bizi-bizirik dago herria. ARGAZKIA: UTZITAKOA

ONGI PASA BESTAKI

Muga Gabe

Raul Tarancon sukaldari bilbotarraren eskutik **artisans sukaldaritza**

www.restaurantemugagabe.com

Asteazken zehar: 12:00-15:30
Ortzirale eta larunbatetan: 12:00-15:30 | 20:00-22:30
Asteartetan itxita

848 992 943

AZKETA FRONTOIA

OSTATU-JATETXEA

ONGI PASA BESTAKI

Frontoia
ZUGARRAMURDI
948 599 022 - 948 599 230

Ongi pasa bestak!

Montxo
JATETXEA - ERRETEGIA

Tradizioa, historia eta gastronomia

asadormontxo.com

Axular karrila, 12
50111 Urdazubi-Urdax (NAFARRUA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com

BERRI S.L.

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 Berk.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

Ongi pasa bestak!

Zugarramurdiko Udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue herritar eta bisitari guztiei!

BIDASOA
OVATILAK - GARDINERAK
900 001010

609 446 693
948 625 663
bidasoa@neumaticosbidasoa.es

Alkaiaga Industrialdea
Zubi Kalea 6 - LESAKA

Ongi pasa bestak!

MADERAS SANTESTEBAN Ongi pasa bestak!

Mendi lanak Pinuak erosten ditugu
Bigak | Montajea obran
Teilaturako egiturak
Izei, haritza eta douglas edo laminatua
Osagarriak | Autoklabe tratamendua

www.maderasantesteban.com

Arrazo parajea, ZUBIETA | 948 45 08 77
info@maderasantesteban.com

Zubietako Udalak
besta zoriotsuak opa dizkizue
zubietar eta bisitari guztiei

PALESTRA
MATE
MATEA
EUSKAL

Arrate Estetika Zentroa

Zatoz eta probatu!
948 450 286

Ongi pasa fiestak!

Aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak
Masajeak | Laserra | Elektrikoa | Depilazioa
Makillajeak | Betile liftina | Manikura eta
pedikura | Produktu salmenta pertsonalizatua
Opari txartelak...

ZUBIETAKO EGITARAUA



Urtero bezala, arbola altxatuz hasiko dituzte festak eta azken gauean botako dute. ARTXIBOTIK

ABUZTUAK 14, OSTIRALA

19:00etan pala txapelketaren finala.
20:00etan kalejira herriko txistulari eta
trikitilariekin. **00:00etan** arbola altxatzea,
ondotik Zubietako joaldunak herrian
barna. **00:30ean** Iratzar erromeria
taldea.

ABUZTUAK 15, LARUNBATA

11:00etan meza, **ondotik** kalejira
herriko txistulari, buruhandi eta
erraldoiekin. **13:00etan** herri kirolak:
Aizkora apustuan Ibai Soroa eta Mikel
Santesteban, Jexus Etxeberria eta
Palaxioren kontra. Harria jasotzen
Estefania Etxebeste, Xiker Larrea eta
Udane Perurena. **16:30ean** haurrentzako
egurrezko jostailuak. **20:00etatik**
aitzinera erromeria Biziraun taldearekin
arratsaldez eta gauetz.

ABUZTUAK 16, IGANDEA

11:00etan Doneztebeko dantzari ttikien
emanaldia. **12:30ean** bertso saioa
Andoni Egaña, Xabat Illarregi eta Onintza
Enbeitarekin. **16:00etan** mus txapelketa
herriko ostatuan. **19:30ean** dantzaldia
Saltoka taldearekin. **22:00etan**
zezensuzkoa eta **00:00etan** DJ Txingudi.

ABUZTUAK 17, ASTELEHENA

10:30ean haur jolasak. **14:00etan**
haurren eta gazteen bazkaria plazan.
17:00etan plater tiroketa. **18:00etan**
patata tortilla lehiaketa, **ondotik** sari
banaketa eta tortilla jatea. **19:00etan**
DJ Alkape. **22:00etan** zezensuzkoa eta
00:00etan DJ Alkape.

ABUZTUAK 18, ASTEARTEA

12:00etan pilota partiduak: Infantiletan
Enaitz Elizalde eta Eñaut Zubieta, Iñaki
Leiza eta Oihan Hualderen kontra.
Afizionatuetan Endika Santesteban eta
Haritz Salcedo, Andoni Sarasibar eta
Jon Lazkoden kontra. **14:00etan** herri
bazkaria Euskal Parrillarekin eta Xabi
eta Ander trikitilariak alaitua. **20:00etan**
dantzaldia Luzianorekin. **22:00etan**
xingar jatea estalpean. **00:00etan**
arbola botatzea eta **00:30ean**
dantzaldia Luzianorekin.



Gazteak herri kiroletan. ARTXIBOTIK

«Euskal Herritik aterata eta kultura berriak ezagutu nahi nituen»

MALÉN ETXEKOLONEA DIEZ ZUBIETAKO GAZTEA



Mexikon izan da aurtan Etxekolonea. UTZITAKOA

R. Oskariz

«Unibertsitateko karrera akitu berri duen eta etorkizunean zer egin sobera ongi ez dakien gaztea». Halaxe aurkeztu du bere burua Malén Etxekolonea Diez zubietarrak. Ingeniaritza biomedikoa ikasi du Nafarroako Unibertsitate Publikoan, eta Mexikon pasatu du azken ikasturtea, tesia egiten. Monterreyen izan da, «Mexikoko iparraldean eta mendiz inguratuta dagoen hiri industrial batean».

Azaldu duenez, «Euskal Herritik ateratzeko eta kultura berriak ezagutzeko gogoak» eraman zuen atzerri, «eta unibertsitateko aukerak ikusita, Mexiko izan zen kuriositate handiena piztu zidan herrialdea». Gogoan du lehenbiziko aldiz Monterreyra ailegatu zenean «asko harritu nindutela hiri inguruko mendiak. Mendien magalean kolore askotariko auzoak ikustea ere deigarria egin zitzaidan».

Ez du irakasgairik egin bertan, tesia baizik, «irakasle baten laguntzarekin». Hala ere, «ikusi ahal izan dut erakusteko metodologia ikasleen parte hartzean oinarritzen dela, eta enpresa sortzaile izatera animatzen dietela».

Ikasketekin aski ez, eta boluntarioritza ere egin du; «Baztango lagun batekin batera Panaman egon naiz, Nura izeneko proiektu jasangarri batean laguntzen. Bertan inbasiboa den arrain baten hegalekin bitxiak egiten ibili gara eta neurri ttikian izan den arren, komunitateari laguntzeko aukera izan dugu». Kontatu duenez, «esperientzia arrunt polita izan da, egindako lana asko gustatu zait».

Egonaldia aberasgarria izan da; «Mexikok postuak ditu karriketan, artoarekin egindako hamaika plater eta edari, jende arrunt irekia eta eskuzabala, musika eta dantza nahi... handia da eta izkina bakoitzean harrapatzen da berezia den zerbait». Hala ere, «Euskal Herriko lasaitasunaren falta sentitu dut batzuetan. Monterreyen gustura egon arren, hain hiri handia denez, kaotikoezia suertatu zait».

Hori dela eta, gustura bueltatu da herrira eta festetan ez du hutsik egiten. Izan ere, «festazalea» dela aitortu du, «eta bereziki dantzan ibiltzea gustatzen zait». Zubietako festetan «bezpera, joaldunekin, arbola goratzearekin eta zortzikoarekin, nahiko berezia izaten da. Aguantatuz gero, biharamunek diana ere dibertigarria izaten da». Hala ere, gehien gustuko duen momentua «patata tortilla leihaketa da, dudarik gabe. Giro goxoa eta elkarren arteko lehia nahasten dituen arratsaldea izaten da».



Lagunekin patata tortilla lehiaketan. ARTXIBOTIK

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu



www.ibargoyen.net ☎ 943 616 587
Molino Erreplidea, 21 - 20305 - IRUN

Ongi pasa bestak txurripuki! Aupa hil



Bizikleten salmenta,
konponketa eta alokalrva
Arropa eta osagarrien gunea

Bidasoa 76. BERA | 948 382 662 | joxemi@kateabike.com

www.kateabike.com

ANTZUZELAI
S.L.

HARGINTZA
FATXADAK | OBRAK
TXIMINIAK | ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK



www.antzuzelai.com

BERA | T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com



Oxeguarda
ostatua

Ongi pasa festak!

T. 948 514 019 • Nagusia, 34 • GOIZUETA

Ongi pasa festak!

IGELTSERITZA - ERAIKUNTZAK
Javier Zabala

Kale Nagusia, 66 T. 948 51 42 28
GOIZUETA M. 679 47 98 93
construcciones.javierzabala@gmail.com

iskibi kanpina
GOIZUETA

Tel. 0034-948514277
Leizua-Hernani NA-4150, km 18
31754 GOIZUETA (NAFARROA)
www.iskibi.com ...ta gero atsegina

ZUBIMUXU aterpea
Goizueta

Sukaldea erabilgarri - 30 plaza
Biko, seiko eta hamarrekoko gelak - Literak

www.zubimuxu.com Herriko plazan 663 85 85 02

MUTU Ongi pasa festak!
taberna 948 514 327

Felmin Antonio Apeztegui, 7 Goizueta




Goizuetako Udalak
festa onak
opa dizkizue
goizuetar eta
bisitari guztiei

GOIZUETAKO EGITARAUA

ABUZTUAK 9, IGANDEA

08:00etan aurorak Umore Ona eta Ozenki abesbatzaren eskutik.

ABUZTUAK 14, OSTIRALA

10:00etan Irumaita txarangaren irteera.

12:00etan txupinazoa. **Ondoren**, buruhandi eta erraldoiak Igandea txarangarekin.

12:30ean erakusketa gaztetxean. **12:30ean** txosnaren irekiera. **14:30ean** gazte bazkaria ikastolan. **17:00etan** haurrentzako jolasak. **18:30ean** haurrentzako merienda.

18:30ean peñaren irteera Igandea txarangarekin. **20:00etan** gazteen txupinazoa gaztetxean. **20:30ean** Goittikiren bingoa ikastolan. **00:00etan** dantzaldia Itzal taldearekin. **00:00etan** Infernu Dj txosnan.

Ondoren Igandea txarangaren irteera. .

ABUZTUAK 15, LARUNBATA

07:00etan diana dultzaina jotzaileekin.

08:00etan entzierroa Lasturko zezenekin.

11:00etan meza eta prozesioa. **12:00etan** goxoki banaketa plazan. **12:30ean** lehen mailako afizionatuen pilota partidak.

Emakumezkoetan Sagardui eta Mendizabal, Zabaleta eta Bertizen kontra ariko dira.. Gizonezkoetan Etxeberria eta Goikoetxea, Arribillaga eta Apeztegiaren kontra.

12:30ean buruhandi eta erraldoiak dultzaina jotzaileekin. **13:30ean** Igandea txarangaren irteera. **18:30ean** herri kirolak plazan. Izeta eta Olaizolak pentatloia eginen dute.

19:30ean bertso saioa plazan. Maialen Lujanbio, Eki Mateorena eta Aissa Intxausti ariko dira bertsotan eta Ane Apeztegui gai jartzaile. **23:00etan** su artifizialak. **23:30ean** Potato taldearen kontzertua. **00:00etan** Elvis Dj txosnan.

ABUZTUAK 16, IGANDEA

11:00etan apar festa eskolan. **11:00etan** helduentzako toka txapelketa. **12:00etan** sagardo dastaketa plazan. **12:30ean** Igandea txarangaren irteera. **18:00etan** pilota partidak. Lau eta erdian Irribarria eta Lizeaga ariko dira. Binaka Apeztegui eta



Peñaren Egunarekin borobilduko dituzte festak.

Bikuña, Salaberria eta Gaskueren kontra.

19:30ean Igandea txarangaren irteera.

20:00etan Goittikiren bingoa ikastolan.

20:30ean Chuchin Ibañez y Los Charros.

00:00etan Lasturko zezenak. **00:30ean**

dantzaldia J&J Djekin plazan. **Ondoren**

Igandea txarangaren irteera. **01:00etan**

Adarrak Dj gaztetxean..

ABUZTUAK 17, ASTELEHENA

10:30ean haurrentzako puzgarriak eta ur txirrista. **12:30ean** buruhandi eta erraldoiak

herriko trikitilariarekin. **13:30ean** Igandea

txarangaren irteera. **14:00etan** haurrentzat

bazkaria ikastolan. **17:00etan** Umore Ona

Pilota Eskolako urteen partidak. **17:00etan**

mus txapelketa Iskibin. **18:30ean** Umore

Ona dantza taldearen emanaldia. **19:30ean**

Igandea txarangaren irteera. **20:00etan**

Goittikiren bingoa ikastolan. **21:00etan**

dantzaldia Gorka Mendiñuetarekin.

22:30ean zezensuzkoa kale nagusian.

ABUZTUAK 18, ASTEARTEA

11:30ean Umore Ona peñaren irteera

Igandea txarangarekin. **12:00etan** pilota

partidak: Apaolaza eta Galartza ariko dira

aurrez aurre. Segidan. Goizueta eta Aranoren

arteko partida: Perurena eta Apeztegui,

Olaizola eta Lizeagaren aurka. **Ondoren**,

Igandea txarangaren irteera. **14:30ean**

Umore Ona peñaren bazkaria ikastolan.

Ondoren, kalejira Igandea txarangarekin.

18:30ean Lasturko zezenak. **20:00etan**

Gottikiren bingoa ikastolan. **00:00etan**

udaletxe aurrean bukaera ekitaldia.

00:30ean dantzaldia Beñat Mitxelena

eskutik. **Ondoren** Igandea txaranga.

«Mundiala izaten da Peñaren Egunean sortzen den giroa»

ESTEBAN AROTZENA MITXELENA GOIZUETA

Eneritz Iraola GOIZUETA

«69 urteko Goizueta zale amorratua» dela esanez aurkeztu du bere burua Esteban Arotzena Mitxelenak eta bere solasak aditzen dituenak nabaritu du zenbaterainokoa den zale-tasuna. Hala, herriaren alde «ahal duen guztia» ematen saiatu izan da herriko hainbat erakunde eta mugimendutan ibiliz: «Zortzi urtez kultura, euskara eta festetako zinegotzia izan nintzen. Orain dela bi urtera arte festetako komisioan egon naiz eta bertso saioa antolatzeke ardura ere izan dut». Pauso bat atzera eman eta erreleboa eman du orain: «positiboa da aldaketa hori eman dela ikustea, lanerako jendea badagoela esan nahi duelako. Auzolana da hori ere, Batzuetan ikusten ez den lana da, baina beste auzolana bezain beharrezkoa».

Ardura batzuk alde batera utzi dituen arren, bada oraindik mantentzen duen lan bat: «Ikastolako txosnan lau orduko txanda mantentzen dugu eta zutik irauteko moduan gauden bitartean horretan segiko dugu». 1979an jarri zuten lehenbizikoz txosna herriko ikastola finantzatzeko: «garai batean 24 orduz egoten zen irekia eta ikastola itxi zenean, festari ikaragarritzko ekarpena egiten zitzaiola ikusita, horri segida ematea erabaki genuen».

Festazalea dela nabari zaio Arotzenari eta bere neurriaren barrenean «topera» bizi dituela kontatu du: «Urtetik urtera motxagoa da neurri hori, baina bueltaxka bat egunero egiten dugu». Festak, batez ere, familia giroan bizi dituela azaldu du: «Familiako txokoa badugu eta hor elkartzeko gara egunero. abuztuaren 14ko afarian hasi eta 17ko bazkarira arte». Kuadrilla ederra izaten dira: «30 bat lagun egunero. Txikiak lau urte ditu eta nire arreba zaharrenak 80 urtetik goiti. Goizueta festetarako etortzen dira kanpoan bizi direnak ere». Bada, ordea, kuadrilla-



Egunero egiten du bueltaxka festetan.

rekin ezinbestean bizi beharreko egun bat: «Peñaren Eguna. Festetako egunik bereziena da. Barren barrenean daukadana». Egunaren laburpena ere egin du: «Eguerdian poteoa, gero bazkaria. Lotu ez gara egiten, gogor xamarra delako kalejira hori eta poteoa ibiltzen gara tarte horretan. Gero, *Gaixoa ni* eta indarrak ahitu arte eusten diogu duintasun osoz. Batzuetan, duintasun askorik gabe bukatzen dugun arren». Azken urteetan giroa zertxobait apaldu den arren, «beti izanen du xarma berezia». Azaldu du, herritarren batz besteko adina igo denez, orain ez dela hainbeste jende lotzen: «kalejira ez da xamurra, baina oraindik ere erdiak baino gehiago lotzen dira eta momentu oso bereziak sortzen dira».

Festetako uniformeak

Abuztuaren 18an ez dago jakiterik zer kolore hartuko duten soinean eramane dituen jantziek. Etxetik «festetako uniformeak» jantzita aterako dela segurua da: «Egunero zuriz jantzen naiz eta soinean beti blusa berdea eramaten dut». Orain dela urte batzuk, egin zuten herrian ohitura hori zabaltzeko saiakera: «Orain kolore zuri, berde eta gorriak herria-

MAI
OKINDEGIA - GOZOTEGIA
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
K. NAGUSIA · GOIZUETA · 948 514 242

COVIRAN
ARANTXA ETA JUANITO
FESTA ONAK IGAROI!
T. 616 17 85 44 · GOIZUETA

UMORE ONA
ELKARTEAK
festa zoriontsuak opa dizkie herritar eta bisitariei, eta batez ere bazkide guztiei
GORA GOIZUETAKO FIESTAK!!!

GOIZUETAKO
BASERRITARREN ELKARTEA
GURE EKARPENA
Baserritarrak elikagaiak gizarteratzen
Lanpostuak sortzen
Mendiak garbitzen
Ingurumena zaintzen
Herri tikiak bixkortzen
ONGI PASA FESTAK!

ZUBIONDO
TABERNA
ONGI PASA FESTAK!
Espiritu Santo · GOIZUETA · 645 307 272



izarraga
harategia

Haragia, gazta, hestebeteak, pateak, aurretik sukaldaritza produktuak

ONGI PASA FESTAK!

"Gurea, kalitatea"

GOIZUETA - T. 948 51 40 56 - Herriko pl. 10



Turkia

IRTEERA 2026ko irailean

NOOOA BIDAIAK

Noooa gidatutako talde bidaiak. Lasarte-Oriatik irteera.

943 37 36 13 • info@nooa.eus • Hipodromo Elarbidia, 10 • Lasarte-Oria

ren ikurrak bihurtu dira eta nik uste, ohitura gehiagora doala». Herri oso-za zabaltu da, «Garai batean, ez zegoen ongi ikusia peñakoa ez zen batek blusa berdea janzea. Purista hutsak ginen. Azken urteetan aldatu dira gauzak eta orain haur bat jaiotzen denean, nahi eta nahi ez haurrari egiten zaion lehenbiziko oparia izaten da blusa».

Festetan aldaketa

Aldaketa guztiak ez dira hoberako izan, «Festa ederrak dira oraindik ere, baina giroa zertxobait apaldu dela iruditzen zait. Goizuetan orain dela 15 urte hemen ez zen egun txarrik izaten, beti topera egoten zen; berdin zuen astez edo asteburuan tokatzea». Ikaragarritzko festak izaten zirela aipatu du: «sona handia zuten Euskal Herri osoan. Hori jaitzi egin da». Hainbat faktorek eragin dute horretan: «Etorri behar duenak kotez etorri behar du, garraio zerbitzua eskasa delako. Alkoholemia kontrolak ere maiz jartzen dituzte eta gaur egun, horrek asko mugatzen du». Gainera, jendeak lehen baino parranda gutxiago egiten du: «Gure gazte garaian egunero ateratzen ginen, ez genuen planteatzen gau batean ez ateratzea. Ordubiak arte edo seiak arte... baina atera. Gaur egun, gazteek abuztuaren 14an, 16an eta 18an egiten dute parranda eta 17an ez da katurik izaten».

Goizuetako festak antolatzeke orduak udalak ahalegin ikaragarria egiten duela nabarmendu du Arotzenak: «Euskal Herri osoan ez dira udal asko izanen biztanleko Goizuetako Udalak adina diru gastatzen duenik. 700 biztanle eskaseko herriak 50.000 euro gastatzen ditu festetan». Festak antolatzeke orduan garai bateko egitura mantentzen dutelako da hori: «Garai batean pinudiak saltzen genituen festa aurrean eta kontzertuak antolatzeke erabiltzen genuen». Baso ustiaketatik lortzen zuten diruari esker, festak antolatzea oso erraza izaten zela aitortu du: «dirua bage-nuelako. Euskal Herriko berbena ezagunenak etortzen ziren. Joselu Anaiak, Egan, Gozategi... eta gazte asanbladak antolatutako beste hainbeste». Orain diru sarrera horiek bukatu diren arren, garai bateko dizdira mantentzeke ahalegina egiten dute: «Festak antolatzen dituenak egitura horri eutsi nahi dio. Esate baterako betizuak eta egunero txaranga izaten dira. Zer herrian dagoen egunero 12 edo 13 laguneko txaranga bat? Baina, nork kenduko du hori?».

Ekitaldiak ekitaldi, herritarren esku dago festa giroa sortzea eta horrekin lotuta, mezua zabaltu du Arotzenak: «Orain arte bezala segitzeko, eusteko Goizuetak duen festa giroari eta inguruko jendeari ere gonbidatu. Zuriz, berdez eta gorritz jantzi eta eman diezaiozun kolorea herriari».



Merkealdia

75. urteurrena

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornoza
Mahai oihalak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toallak
Edredoi azal nordikoak

DONAMARIAKO EGITARAUA



Abuztuaren 16ko goizean herri krosa egingen dute. Argazkia joan den urteko bestetakoa da.

ABUZTUAK 14,
ORTZIRALEA

18:30ean herri kirolak: harri altxatze erakustaldia eta Nafarroako 2. Mailako Aizkolari Txapelketaren kanporaketa. **20:00etan** txupinazoa eta trikitilarietara kalejira. **21:00etan** Zopak herriko ostatuan. **00:30etik 05:00etara** Dj Bull.

ABUZTUAK 15,
LARUNBATA

09:00etan diana Baztango gaiteroekin. **11:00etan** meza. **12:00etan** kalejira, gaiteroekin eta erraldoekin. **12:15ean** omenaldia 80 urteko herritarrei. **12:30ean** dantzarien saioa. **17:00etan** herriko pilotarien partidua. **18:00etan** binakako pilota partidua: Xala-Urruzola, Elizalde-Alduntzin. **20:00etatik 21:30era** Roberto&Jessi mariatiak.

ABUZTUAK 16,
IGANDEA

10:00etan herri krosa (Izen ematea 09:30ean). **11:30ean** gazte jokoak.

13:00etan paella prestatzea eta jatea. Mozorro lehiaketa. **Ondotik** bingoa eta karaokea. **19:00etan** Puntu kaketx elektrotxaranga. **21:30ean** pintxo afaria. **23:30ean** Dj Endara.

ABUZTUAK 17,
ASTELEHENA

11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara puzgarriak igerilekuan eta frontoian haurrendako. **16:00etan** mus txapelketa. **18:00etan** txokolatea. **19:00etan** patata tortilla eta postre lehiaketa. **Afal aitzinetik eta ondotik** dantzaldia Ansorregi eta Larrañagarekin. **21:30ean** sari banaketa.

ABUZTUAK 18,
ASTEARTEA

14:00etan herri bazkaria Maddi Ane Txoperena eta Alazne Untxalo bertsolariekin eta Aitziber eta Aritz trikitilarietara. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia Trikitiens taldearekin. **22:00etan** afaria herriko plazan. **23:00etatik 01:00etara** dantzaldia Trikitiensekin. **01:00etan** Gaixoa ni.

ukulu
inmobiliaria

Lekueder kamika 16, Sunbilla
667 547 445 | xuban@ukulu.es

ONGI PASA
BESTAK!

sasoi
eraikuntzak

T. 948 451 596 | info@sasoi.eus
www.sasoi.eus

Garmendi
TX powered by PinkmanBikes



Bizikleta mekanikari profesionalak, salmenta eta alokairua
www.garmenditx.com

SCOTT ORBEA

AMFLOW

KTM

FANTIC

FORESTAL

CEMENTAL

CEMENTAL

CEMENTAL

CEMENTAL

Rosa Seminario, 13 | DONEZTEBE

660 05 54 94



aurreztu
ur ihesak

Besta
ederrak
pasa!

Xanti Belarra Telletxea

608 947 506

Etxe barruko nahiz kanpoko sareetako ur
ihesen bilatze lanak; ikerketak, detekzioak eta
konponketak

www.uraurreztu.eus

«Komentuan bertsolariak, trikitilariak eta herritarrak elkartzea arrunt polita da»

IRATI SARRATEA AMIGORENA DONAMARIAKO GAZTEA

G. Pikabea DONAMARIA

«19 urteko neska alaia, bestazalea eta lagunartekoa, lagunekin planak egitea gustuko duena». Hala aurkeztu du bere burua Irati Sarratea Amigorenak (Donamaria, 2007). «Lagunak, dantzak eta mendia» ditu afizio, eta hain zuzen, dantzarako zaletasun horri erantzunez, «duela urte pare bat» Erreka Dantza Taldean apuntatu zen. «Arrunt gustura» omen dabil.

Gainerakoan, Historia eta Ondarearen gradua egiten ari da Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Eta ikasturtean zehar astegunak Iruñean eta asteburuak Donamarian pasatu ditu. Kontatu duenez, «betitik gustatu zait Historia, baina Batxilergoa hasita, argi ikusi nuen zer ikasi nahi nuen». Aitortu du «aldaketa handia» izan zela unibertsitaterako saltoa, baina «arrunt gustura nago. Hasieran, kezkatua nintzen ez nuelako inguruko inor, baina klase kide ezin hobeak tokatu zaizkit». Ikasteko martxari dagokionez, berriz, «lehenbiziko sei hilakoa zailagoa egin zitzaidan, baina gerora, ederki moldatu naiz».

Udan, ordean, bertzelako martxa du. Lanean ari dela esplikatu du, eta ez hori bakarrik: «Herriko igerilekura joateko edota lagunekin planak egiteko ere tarteak hartzen ditut».

Bere herria maite duela ere agerian gelditu da: «Ttikia izanda ere, herri elkartua da, giro ona izaten dugu gure artean eta hori da garrantzitsua niretako. Adin guztietako gazteak elkartzen gara, eta hori da herri ti-kietako xarma». Eta herriko bestak ere maite ditu. Haur denboran, «egunez» ospatzen zituela erran du eta «gustukoena haurren eguna izaten



Irati Sarratea Amigorenak 19 urte ditu.

nuen». Gaur egun, berriz, «egunez eta gauzez» probesten ditu eta zikiro jatearen eguna du kuttunena. «Gehien gustatzen zaidana zikiro jatearen ondotik komentura joaten garen momentua da. Komentuan bertsolariak, trikitilariak eta hainbat adinetako jendea elkartzea arrunt polita iruditzen zaib». Baina gazte eguneko bazkarian ere «ez dut hutsik egiten; adin guztietako jendea etortzen da eta arratsaldeko jokoetan ederki pasatzen dugu». Horregatik eta bertze gauza aunitzengatik iruditzen zaizkio Donamariako bestak «bereziak»: «Nahiz eta bertze herri aunitzetan bestak izan, besta politak egiten ditugu eta herri guzira biltzea lortzen dugu».

Herrikoen biltzetik, Zigako bestetan ere geldialdia egitea gustatzen zaiola gehitu du, beretako «arrunt politak» direlako. Gainerakoan, momentuko bere helburua «udaz disfrutatzea» da eta epe laburrean «unibertsitateko etapaz gozatzea». Gero geroakoak: «Etorkizunera begira ez dut oraindik deus pentsatu. Ikusiko dugu».

EZKURRAKO EGITARAUA



Giro ederra izan zuten joan den urtean herri bazkarian. UTZITAKOA

ABUZTUAK 14,
OSTIRALA

18:00etan pala partida: Paula Gorostiaga eta Irati Purroy, Maider Ardanaz eta Haizea Salanuevaren kontra ariko dira. **19:00etan** Frontenis Txapelketako finala. Segidan, txokolatea banatuko dute. **20:00etan** txupinazoa. **20:30ean** gazte eta helduen afaria.

ABUZTUAK 15,
LARUNBATA

10:00etan diana. **12:00etan** meza. **13:00etan** herri kirol erakustaldia: Arkaitz Etxebeste eta Lierni Osa, Josean Etxeberria eta Maddi Gesalagaren kontra ariko dira aizkoran, harria altxatzen eta arpanan. **17:00etan** pilota partidak. **19:00etatik 22:00etara** eta **00:00etatik 02:00etara** J&J djrekin musika.



Auzolanak eta pestak bat egingen dute.

ABUZTUAK 16,
IGANDEA

10:00etan diana. **10:30ean** mus txapelketa jokatu dute. **11:00etatik 13:00etara** eta **15:00etatik 18:00etara** karts eta puzgarriak jarriko dituzte frontoian. **19:00etan** pintxo potea egingen dute. **18:00etatik 22:00etara** dantzaldia izanen da Fidelen eskutik. **Gauean**, zezensuzkoa.

ABUZTUAK 17,
ASTELEHENA

10:00etan diana. **10:30ean** pilota partidak jokatu dute. **18:00etan** aizkora erakustaldia eskainiko dute frontoian: Iker Vicente eta Ezpeletak, Txikia eta Larrañaga izanen dituzte aurkari. **19:00etatik 22:00etara** J&J Djarekin dantzaldia. **Gauean**, su artificalak.

ABUZTUAK 18,
ASTEARTEA

10:00etan diana. **13:00etan** kantuan aritzeko aukera izanen da Uxue eta Aitor Ibarrekin. **14:00etan** herri bazkaria. **16:00etatik 17:00etara** J&J Dj ariko da musika jartzen. **18:00etan** Joselu Anaiak taldearen kontzertua. **Segidan**, J&J Dj ariko da eta gauean pestei bukaera emateko *Gaixoa Ni* abestuko dute.



Eraikuntza berriak
Zaharberritzeak
Teilatuak
Igeltseritza orokorrean
Passive House

649 403 320

Toki-Ona Etxea, EZKURRA | betilansl@gmail.com



**EZKURRAKO
UDALAK**

*Pesta zoriontsuak opa dizkizue
herriar eta bisitari guztiei*



EZKAIN
Eraikuntzak S.L.

☎ 650 910 867 / 948 610 956

☎ 650 910 868 ✉ ezkain1@gmail.com

📍 Lizarraga, 3 - 31880 LEITZA

ONGI PASA PESTAK!

Hostal Ezkurra

Barranka jatetxea
www.hostalezkurra.com
info@hostalezkurra.com

Nagusia, 4 - EZKURRA
T. 948 615 098 | 606 301 899



ETXEAK, TEILATUAK eta ERAIKUNTZAK OROKORREAN

ONGI PASA HERRIKO PESTAK!

Tfnoa: 948 615 110
Mug: 699 461 386
Eguzkialde etxea
31749 EZKURRA

«Herrian goxo hartu gaituzte eta etxean sentitu gara lehenbiziko momentutik»

ANDONI URANGA SUESCUN EZKURRAN BIZI DEN GIPUZKOARRA

Eneritz Iraola EZKURRA

Badira bizitza aldatzen duten erabakiak. Ustekabeen sortzen diren aukerak. Patuak hala nahita, Ezkurra bizitzera etorri ziren duela urte eta erdi Andoni eta Sandra, bere bikotekidea: «Donostiako Antiguu auzoan alokairuan bizi ginen. Alokairuen prezioa asko igotzen ari zen eta giro lasaigo baten bila, erosteko baserri baten bila hasi ginen». Hasiera batean, Gipuzkoa aldean hasi ziren bila, baina lagun baten etxean egindako elektrikari lanek aldatu omen zuten bilaketaren norantza: «lagun baten etxera joan nintzen entxufe bat jartzeko laguntzera eta berriketan ari ginela, baserri bila ari ginela kontatu nion. 'Nola Gipuzkoan?' esan zidan, 'etorri nire herrira, han badaude baserri batzuk salgai'. Handik pare bat egunetara herrira joan eta «bertan topatu genuen bila genbiltzana».

Ez zuten inolako loturarik herriarekin: «bizikletan bizpahiru aldiz bertatik pasea nintzen, baina Martin izan zen herria erakutsi ziguna». Bertan, «paisaia eta txoko ederrak, lasaitasuna baina aldi berean herri giroa, mugimendua...» badagoela uste du eta guztia gainera, azpimarratu du «jende ederrarekin» egin duela topo: «herritarrek talde, ekipo, ederra osatzen dute». Gainera, badute gustuko duen beste ezaugarri bat: «zirikatzaileak eta broma zaleak dira eta oso gustuko dut giro hori».

Lehenbiziko momentutik eroso sentitu ziren herrian: «goxo hartu gaituzte eta etxean sentitu gara lehenbiziko momentutik. Oso eskertuta gaude». Barranka ostatuan egin zituen lehenbiziko hartu-emanak, «bi astetan herri guztia ezagutzen nuen». Herrian integratzea «oso erraza» izan zen, «herritarrek asko erraztu dute prozesua eta denon laguntza izan dugu». Beraien jarrera ere halakoa izan da: «irekiak gara eta jendea ezagutzeko gogoz etorri gara». Ez zuten lotarako toki bat soil bat bilatzen, Ezkurran



Duela 18 hilabete etorri zen Ezkurra bizitzera

bizitza izan zen hasieratik apustua: «Herrian antolatzen diren gauzetan parte hartzea, laguntzea... izan da hasieratik gure asmoa».

Lehenengo urtean ezagutu zituen Ezkurra festak: «Giputxi deitzen diate herrian eta gerra dexente eman nuela uste dut». Lehenengo urtean «maila altu xamar jarri» omen zuen, «ez dakit aurtun lortuko dudan maila horri eustea, baina giputxia nafarrei gerra pixka bat emateko gogoz dago».

Ezkurra festetako giroa ordura arte bizi izan duenarekin alderatuta «oso desberdina» dela aitortu du: «polita da ikustea auzolanaren ideia zeinen zabalduta dagoen. Denak aritzen dira lanean: ontziak garbitzen ez bada, mahaia jartzen...». Ez zen izan berezia iruditu zitzaion gauza bakarra: «Mariatxiak urtero ekartzen dituztela esan zidaten eta herri guztia aritzen da kantuan». Horretaz gain, «frontoian jartzen dituzten kartsak eta su artifizialak» ere bereziak iruditzen zaizkio.

Herriar guztiei pestaz gozatzeko gonbidapena luzatu die eta galdera ere badu beraientzat: «Noiz bukatuko da probaldia? Ezkurra titulu ofiziala eskuratzeko irrikaz gaude». Argi baitute zein den beraien asmoa: «Ez kurran gelditzen gara betiko. Ez dugu hemendik mugitzeko asmorik».

ARESOKO EGITARAUA



Kuadrillen egunean herri osoa biltzen da pestara eta arratsaldean ingurutxo dantzatzeko dute.

ABUZTUAK 14, OSTIRALA

Arratsaldean umeentzako merienda eta jolasak guraso elkartearen eskutik. **18:00etan** txupinazoa eta jaio berriei zapien banaketa. Aurtengo omendua Maraburu Kooperatibako talde eragilea izango da. **18:30ean** Frontenis Txapelketa Mistoko finala. **21:00etan** guraso elkarteak afaria karpan. **Ondoren**, bingoa.

ABUZTUAK 15, LARUNBATA

09:30ean diana txistulariekin. **11:00etan** meza. **Ondoren**, hamaiketako herritar guztientzat karpan. **13:00etan** Ados elkarteak antolatutako VI. Plazaz Plaza Txapelketako pilota partida. **19:00etan** Aresoko dantza taldearen emanaldia. **21:30ean** afari autogestionatua karpan. **23:00etan** erromeria Ttarraka taldearekin.



Herriko dantzariak emanaldia eskainiko dute.

ABUZTUAK 16, IGANDEA

09:30ean diana herriko trikitilarien eskutik. **13:00etan** herri kirolak. **14:30ean** herri bazkaria karpan eta **bazkalondoa** Joanes Illarregi eta Julio Soto bertsolariak. **18:00etan** pilota partidua: Olano eta Olazabal, Urbietta eta Lazkozen aurka. **21:00etan** sagardo dastaketa. **23:00etan** erromeria Olgetan taldearekin.

ABUZTUAK 17, ASTELEHENA

09:30ean diana txistulariekin. **11:00etan** umeentzako puzgarriak. **16:00etan** mus txapelketa. **16:30ean** Irurako erraldoiak. **18:00etan** haur eta gaztetxoek krosa. **19:00etan** patata tortilla lehiaketa. **Bitartean**, Mikeltxi Dj plazan. **21:00etan** patata tortilla afaria. **23:00etan** Mikeltxi Dj.

ABUZTUAK 18, ASTEARTEA

09:30ean diana trikitilarekin. **11:30ean** kuadrilla bakoitzeko bi kidek karpara joan beharko dute bazkarirako mahaiak eta edariak prestatzera. **12:00etan** kuadrillen kalejira Lau Katu txarangarekin. **15:00etan** bazkaria. **Bazkalondoa**, jolasak eta Aresoko ingurutxoak. **Ondoren**, Itzal erromeria taldea. **21:00etan** bokata jana. **23:00etan** erromeria Itzal taldearekin.

Goieko ONGI PASA BESTAKI!
GOI MAILAKO EKOLOGIA
Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irún ☎ 943 63 45 36

ONGI PASA PESTAK!
euskron
Etorri gurekin lanera!
+34 948 510 807
www.euskron.com
Elutseder 4
31876 Areso

ULI-ZAR Iturgintza
ITURGINTZA | BEROKUNTZA
GASA-GASOLIOA | MOBLEAK
MANPARAK | KOMUNERAKO OSAGARRIAK
pesta zoriontsuak igaro!
Tel. 647 525 516 • ARESO | LEITZA
arkaitzaresol@gmail.com

Pesta zoriontsuak opa dizkizue
ARESOKO UDALA

NARBARTEKO EGITARAUA

Mailposta
publizitate banaketak

**ZURE INPRENTA
ETA PUBLIZITATE
BANAKETARAKO
ENPRESA**

ongi PaSa beStak!!

Inprimategia **Publizitate
banaketak**

Arribilagako bidea, 55 686 747 713
31739 NARBARTE 648 847 167

www.mailpostabuzoneos.com
amaia@mailpostabuzoneos.com

Aguirrezabal
IGOGAILUAK

Mugikortasun urria dutenentzat jasogailuak.
Izogailuak.
MARKA GUZTIEN IGOGILUEN MANTENTZE LANAK

ascensoresaguirrezabal@hotmail.com
ascensoresaguirrezabal.com
Arretxe Ugalde ind. Ezurrikale kalea, 29 IRUN
943 612 821

24 orduko zerbitzua



Herriko gazteek giro ederra izan zuten joan den urteko gazte jokoetan. UTZITAKOA

ABUZTUAK 21, ORTZIRALEA

09:30ean haur jokoak eta **11:00etan** gazte gosaria. **12:00etan** txupinazoa, **ondotik** herriari itzulia Bertizaranako gaitero eskolaren eskutik eta gazteak etxetik ibiliko dira Joana eta Eider trikitilariekin. **17:00etan** haurren herri kirolak eta **18:00etan** txokolate hartzea. **21:00etan** zopak herriko plazan eta **00:00etatik 04:00etara** dantzaldia Beñatekin.

ABUZTUAK 22, LARUNBATA

11:30ean haurren krosa. **14:30ean** ziklo jatea Bittor eta Manolo bertsolariarekin. **16:00etatik 21:30era** dantzaldia Andonirekin, **ilunabarrean** bokatak guraso elkartearen eskutik. **22:00etan** Hilketa taldea, **00:00etan** EH Sukarra, **02:00etan** Bide batez eta **05:00etan** TrioDoJaneiro DJ.



Haurrek ere izanen dute jostatzeko aukera.

ABUZTUAK 23, IGANDEA

08:00etan aurorak. **11:00etan** meza, **ondotik** herriko dantzarien emanaldia eta luntxa. **18:00etan** herri kirolak: Helduak gazteen kontra. Aizkoran Joxean Etxeberria eta Hodei Ezpeleta. **Ondotik** Destino Sonora taldea. **21:00etan** kantu zaharren afaria Andonirekin.

ABUZTUAK 24, ASTELEHENA

11:00etatik 13:00etara puzgarriak. **13:30ean** haur eta gurasoaren bazkaria eta **14:00etan** gazte bazkaria. **14:30etik 16:30era** puzgarriak. **17:00etan** gazte jokoak eta mojito besta. **19:00etan** Lerro Alaiak taldearen dantza emanaldia. **20:30ean** patata tortilla txapelketa eta tortilla afaria (sarrerak 6 eurotan salgai momentuan). **Ondotik** bingo musikatua. **22:00etatik aitzinera** TrioDoJaneiro DJ.



Lerro Alaiak taldearen dantza emanaldia.

«Lan handia egiten ari gara larunbaterako eta jendea etortzea espero dugu»

UGAITZ SALABERRI BERTIZ NARBARTEKO GAZTEA



Herriko bestak «perfektuak» direla dio Ugaitz Salaberrik, «ez nuke deus aldatuko». UTZITAKO

R. Oskariz

Narbarteko 16 urteko gazte kirolaria da Ugaitz Salaberri: «frontenisean jokatzeko gustatzen zait, futbolearen ere urte aunitzez aritu naiz eta orain Erreka Kirol Elkartean aritzen naiz. Baina nire pasiorik handiena, dudarik gabe, Osasuna da, taldearen zale amorratua naiz».

Kirola ez ezik, lagunekin egotea eta besta egitea ere gustuko du; «ahal dudan guztietan bestara joaten saiatzen naiz». Eta herrikoak bereziki gustukoak ditu, dioenez, «betitik bizi izan naiz Narbarten eta urte guztian egoten naiz herriko besten esperotan, egutegian erabat azpimarratuak izaten ditut egun horiek».

Egun bat aukeratzekotan, «lehenbizikoa» da gehien gustuko duena. «Goiz-goizetik hasten gara eta gosaria egiten dugu herriko ostatuan. Eguerdia aldera trikitixarekin etxetik joaten gara, beste hasiera emanez, eta egun guztia pasatzen dugu horrela. Etxeek haien ateak irekitzen dizkigute eta hori eskertzekoa da. Ilunabarrean, herrira ailegatzean, zopak izaten ditugu eta ondotik musika gau guztian». Erran duenez, «ez nuke deus aldatuko, hain ongi

pasatzen dut niretako besta perfektuak direla».

Antolaketa lanetan

Besta egin ahal izateko lehenagotik dena prestatu beharra dela argi du, eta duela bi urte hasi zen antolatzen laguntzen. «Gaztetan sartzen gara taldean eta ahal den neurrian hasten gara lanean».

«Lan handia» dela aitortu du: «musika kontratatatu, ostaturik ez dugunez otorduak jendearekin solastatu eta lotu, edarien eskaerak... bestak ongi ateratzeko behar diren gauza guztiak egiten ditugu». Herriarren laguntza ere izaten dute, «guraso elkarteak gauza dezente antolatzen ditu haurrendako eta zikiro jaterako gizon kuadrilla batek laguntzen digu eta eskertzekoa da».

Musikak ematen die lan gehien, «denbora aunitzekin» hasten baitira prestatzen: «guk aurrekontu bat paratzen dugu eta horrekin ekarri beharra dugu musika guztia». Aurretik EH Sukarra taldea lortu dute: «lan handia egiten ari gara gaua aitzinera ateratzeko eta apustua ongi ateratzea espero dugu. Kanpoko jendea etortzera animatu nahi dugu, kristoren gaua pasako dugu!».

PANPOX
ileapandegia
ongi pasa bestak!
948 59 21 53
Gorriti, 3 • NARBARTE

Maite Iriarte Yanci
ASEGURUAK ETA INBERTSIOAK
HURBILTASUNA ETA KONFIANTZA

Besta jantzerak opa dezagutegu!!

Santiago, 72 | ELIZONDO
T. 948 58 05 04 | 669 32 63 33
oc.elizondo@generalimediadores.es

JOXEMI BENGOTXEA
Zurgindegia | Egurrak

Ongi pasa bestak!

EGUR SALMENTA | TELATUAK | FATXADAK
ZOLAK | ESKAILERAK | ATEAK | LEIHOAK
EGURREZKO ESTRUKTURAK | ALTZARIAK

M. 660 501 584
www.joxemibengoetxea.com

ASKAPE
CONSTRUCCIONES SORIANO, SL.

ERAIKUNTZA HONDAKIN KUDEATZAILE ZENTROA
HARROBIA | HORMIGOIAK | ESKABAZIOAK
KONTENEDORE ZERBITZUA | ESKOILERAK

T. 948 592 111
canterasaskape@gmail.com

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

BRIKO BAZTAN, SL.
Eraberritzeak
Obrak | Pintura
T. 608 016 052 | San Andres, 66 - NARBARTE

BORDAKO
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industriaidea, 27 - MAFRIDO ERAIKINA - DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 - carnessein@bordako.com

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

Ardiarana
ARDI GAZIAK
Besta zoriontsuak opa dizkizuek
LEGASA • 948 45 64 58
Online denda: www.quesosardiarana.com

kattalin
ATERPE-JATETXE-OSTATUA
Santa Catalina, 24 - LEGASA
T. 948 592322 - 948 450704

JATETXEA
Era tradizionalen prestakuntza jarraituz

Aste tartez:
EGUNEROKO MENUA
Asteburutik:
ASTE BURUKO MENU BEREZIA - HAURRENTZAKO MENUA
+ Plater konbinatuak, bokatak...

AKTIBITATEAK
Erreserbak eta informazioa:
T. 948 592 322
bkz@navarraaventura.com | www.navarraaventura.com

LEGASAKO EGITARAUA



Giro paregabea izan zuten joan den urtean herriko bestetan. UTZITAKOA

ABUZTUAK 27, ORTZEGUNA

10:00etan Bertiz Abentura Parkera irteera. **15:00etan** haur jostetak eta **17:00etan** txokolate hartzea. **18:00etan** frontenis txapelketako finalak. **20:00etan** txupinazoa Herriko Etxean, **ondotik** danborrada eta buruhandiak. **21:00etan** zopak Kattalin ostatuan. **23:00etatik 05:00etara** Jalisko eta Jontxu DJ.

ABUZTUAK 28, ORTZIRALEA

07:00etan aurorak, **ondotik** gosaria herriko plazan. **09:00etan** herriko txistulariak. **11:00etan** meza nagusia, **ondotik** bandera dantza, aureskua Legasako dantzari ttikien eskutik eta dantza luzea. **12:15ean** luntxa Kuku elkartearen. **16:30ean** mus txapelketa. **19:30etik 21:30era** A toda madre mariatxiak. **21:30ean** zezensuzkoa eta **22:00etan** gerren afaria. **00:00etatik 04:00etara** DJ Alkape.



Ttikien dantza saio ikusgarria. UTZITAKOA

ABUZTUAK 29, LARUNBATA

09:00etan herriko txistulariak. **12:00etan** erraldoi eta buruhandiak. **14:00etan** zikiro jatea. **17:00etatik 23:00etara** Jalisko eta Jontxu DJ. **00:00etatik 04:00etara** Biziraun eta **04:00etatik 07:00etara** DJ Alkape.

ABUZTUAK 30, IGANDEA

11:30ean pilota partidak herriko frontoian. **17:00etan** bingoa. **18:00etan** Erreka ttiki dantzarien emanaldia eta Zubietako taloak. **19:00etatik 21:30era** Jon, Jaione eta familia. **21:30ean** zezensuzkoa.



Haurrak ez dira dantzatuko duten bakarrik.

Zaindu maite duzun hori...

Nola erran?

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

'Gurasoak etorri direlarik, alde egin duzu' edo 'Gurasoak etorri direnean, alde egin duzu'?

Biak zuzenak dira. Berez, ekialdeko euskalkietakoa da *-(e)larik* menderagailua, eta batez ere, *denbora* edo *modua* adierazten du, euskalki gehienetan erabiltzen den *-(e)lak* bezala; baina testuinguruaren arabera, azalpena, baldintza zein kausa adierazteko ere balio du.

-(E)LARIK / -(E)NEAN. Denbora (aldiberekotasuna) adierazten du esaldi hauetan -(E)LARIK menderagailuak:

- Gurasoak etorri *direlarik*, alde egin duzu (edo *direnean*).
- Sei urte *nituelarik* hasi nintzen eskolara (edo *nitueanean*).
- Leihotik erori *zelarik*, hanka hautsi zuen (edo *zenean*).

Denborazko *-(e)nean* menderagailuaren parekoa da horietan.

Denboraz bertzelako nozioak (modua, kausa, azalpena, baldintza) ere adierazten ditu esaldi hauetan:

- Hain ona *delarik*, nola ez maita?
- Zu nirekin *zarelarik*, ez naiz inoren beldur.
- Radarrak jarri *direlarik*, autoen abiadura motelduko da.

-(E)LARIK / -(E)LA. Biak erabiltzen ahal dira adizki burutugabeekin.

- Irakaslea sartzen *zeLARIK* (*zeLA*), ume guztiak isildu egiten ziren.
- Atezaina hurbildu zitzaien, eskuan linterna *zeramaLARIK* (*zeramaLA*).

Baina aditzen adizki burutuekin, -(E)LA ez da erabiltzen. Halakoetan, -(E)LARIK erabili behar da.

- Partida akitu *zeLARIK* (**zeLA*), txaloka hasi ginen.
- Leihotik erori *zeLARIK* (**zeLA*), hanka hautsi zuen.

Tradizio urrikoak dira, eta maiz kalko desegoki baten ondorio, honelakoak:

- **Leihotik erori zen, hanka hautsi zuelarik* > Leihotik erori zen, eta hanka bat hautsi / Leihotik erori, eta hanka hautsi zuen. [Okerra dela entenditzen da baldin hori dioenak *Leihotik erori zen eta hanka hautsi zuen* adierazi nahi badu].

*Oharra: 907. aldizkariko hizki zopako hamar dantzen izenak hauek dira: zortziko, zubigaineko, arin-arin, zahagi dantza, makil dantza, mutxikoak, aurreku, trapatan, ingurutxo eta sagar dantza.



Zein da zuzena

'*Inork gutxik' edo 'Inor gutxik'?

Halako kasuetan bigarren osagaiak bakarrik hartzen ditu kasu atzizkiak.


Beraz:

-**Inork gutxik espero zuen guk irabaztea* > Inor gutxik espero zuen guk irabaztea.

-**Gutako inork gutxik esaten du egia* > Gutako inor gutxik esaten du egia.

Hieroglifikoa

'Dudarik gabe' edo 'noski' Baztanen...



A>E

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...



info@ttipi.eus



744 48 43 61

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN HARTZEKO

BURLATAN EDO INGURUAN. Hurrengo ikasturtean Burlatako Lanbide Heziketan Goi Mailako ikasketak egiten dituzten Baztango hiru nekarendako pisu bila. Ikasturte osoan bizitzeko. ☎636 44 15 54.

ERRENTAN EMATEKO

DANTXARINEA. Logela bateko apartamentua errentan emateko. Terrazarekin eta toki lasaian. Urte osorako. ☎690 38 81 34.

LANA

ESKARIAK

BERAN EDO INGURUAN adinekoak zaintzen lanean ariko litzateke, barreneko edo kanpoko langile (*interna* edo *externa*). Lanean segidan hasteko prest. ☎623 24 98 21.

Zaintzan edo garbiketan aritzeko prest. Esperientzia duen emakumea lan bila, adinekoak eta haurrak zaintzen edo garbitzen. Barreneko edo kanpoko langile (*interna* edo *externa*), orduka edo asteburuetan aritzeko, disponibilitate osoarekin. ☎722 50 73 81.

Adinekoak zaintzen aritzeko prest, barreneko edo kanpoko langile (*interna* edo *externa*), orduka edo asteburuetan. Etxeak, apartamentuak, bulegoak, portalak garbitzeko aritzeko ere prest. Esperientzia duen pertsona, arduratsua eta lanean hasteko prest. Erreferentziak dituen. ☎610 84 11 31.

Geriatrico laguntzaile edo adinekoak zaintzen lanean aritzeko prest, baita etxeak, apartamentuak eta portalak garbitzeko prest ere. Orduka, asteburuetan, momentu jakin batzuetan edo aldi baterako, barreneko edo kanpoko langile (*interna* edo *externa*) ariko litzateke. Esperientzia duena eta erreferentziekin. ☎623 18 15 87.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **15 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **20 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira
TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da
Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan
Bizum bidez (744 48 43 61)
TTIPI-TTAPA ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest, goizez ala arratsalde Bortziriak, Doneztebe, Irun, Hendaia inguruetan, 12,50 euro ordua. Edozein duda izanez gero, lasai idatzi Whatsapp bidez. ☎636 18 15 46.

ESKAINTZAK

IRUN. Puiana farmazian farmazialari edo farmazia teknikari bila gabiltza ordutegi jarraian aritzeko. Esperientzia beharrezkoa. Interesatuak idatzi Whatsapp bidez. ☎688 69 56 64.

LESAKA. Almazan batean lanean aritzeko *karretilleroa* behar dute. Interesatuak curriculum bidali: dp-torecursosh@gmail.com.

DANTXARINEA. Mikelenborda jattetxean irailetik aitzinerat aritzeko zerbitzaria behar dute. Egunez aritzeko eta urte osoko kontratua. ☎690 38 81 34.

LESAKA. Lidera hortz klinikan irailetik aitzinera harrerako lanetan aritzeko langile baten bila, baja bat ordezkatzeko. Aitzinera begira, segitzeko aukerarekin. CVA: infolidera@hortzclinika.es.

BERA. Conservas Martikon lan egin nahi duzu irailetik aitzinera? Interesatuak idatzi Whatsapp bidez. ☎636 18 15 46.

sa baduzu, deitu 699775621era edo eman izena webgunean (<https://martiko.com/unete-a-martiko/>). Zure zain egonen gara Beran!

ANIMALIAK

SALGAI

Piriniotar arrazako aratxea salgai. 11 hilabetekoa, gizona, haragitakoa. ☎678 23 82 46.

ZERBITZUAK

PINTURA LANAK



Bidasoa Dekorazioa eta Pinturak. Klase aunitzetako lanak. Paretak leundu, etxeko bertze konponketak, hezetasunaren kontrako tratamendua, laka-tuak... Nafarroa iparraldean, Irunen, Donostian... aritzen gara. Baita urrutituen baserrietan ere. Eta partikularrentzat finkin administratzaile lanak ☎619 88 97 23.

ZURGIN LANAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

MOTORRAK

DENETARIK

Auto erabilia erosiko nuke, Baztan-Bidasoa inguruan, ITV-IAT pasatua duena. Idatzi helbide elektronikoko honetara: a6labs@gmail.com.

SALEROSKETAK



Pago eta haritz egur idorra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako. Etxera eramateko zerbitzua. ☎690 08 56 65.



Logela berri-berria osorik salgai. Bi ohatze, azpian lau kaxoi (*kajo*) handirekin, mahaia, apalak... Gela berri-berria dago eta bi koltxoak opari. Prezio onean. ☎636 90 12 83.



erran.eus

TOKIKOM



Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutz Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Leire Mithura

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Berriemakaldea

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Aitzuri,
Arantxa Etxeberria, Iruna
Elizagolien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Etxelonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantxa
Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione
Zabalo, Nerea Mortalena, Jean
Louis Bessonart, Ganex
Etxeberrigarai, Maialen Iantzi, Oier
Zulaika, Maite Bertiz, Tere Arretxea,
Kontxi Agerre, Xabi Olazar, Irtaxe
Otxandorena, Aitziber Zozala.

Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde

Kudeatzailea

Joxemaneu Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

5.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senerpeko
udalak, Malerrekako Zerbitzuen
Mankomunitatea.

2026ko harpidetza sariak

Eskualdekoak,
Hego Euskal Herrikoak
eta Espainiako Estatukoak 60 €
Ipar Euskal Herria, Europa 126 €
Amerika eta Australia 165 €

URTEURRENA

Miguel Mari
JUANIKOTENA HITA

Mayi

Elizondon, 2024ko abuztuaren 22an,
77 urte zituela

II. URTEURRENA

Hainbertze maite zuen Elizondo,
ez zuen sekula atera nahi izan bertatik.

GOIAN BEGO.

ZURE FAMILIAK MAITE ZAITU



URTEURRENA

Ainara
MARIZKURRENA
SAGASETA

2023ko abuztuaren 7an

III. URTEURRENA

Hiru urte pasatu arren,
zure hutsunea berdin sentitzen dugu.
Gure mendi eta karriketan
elkartzen segituko dugu,
eta brindis bakoitzean
hor egonen zara.
Zure alaitasuna gure artean egonen da beti.
Aunitz matte zattugu.

ZURE KUADRILLA



Hurrengo TTIPI-TTAPA irailaren 3an

Urtero bezala, abuztuarekin batera, irailera bitarte agurtzeko tenorea ailegatu zaigu. Aldizkari honetan, beti bezala, bestetako egitarauak bildu ditugu. Hemen inguruan gelditzeko intentzio duzuenok aukera ederra izanen duzue. Kanpora joan behar duzuenok, berriz, ongi pasa, eta ez atzendu irailaren 3an berriz ere hamabortzeroko hitzordua izanen duzuela TTIPI-TTAParekin. Uda ona izan!



Baztan Bidasoa Ehorzketak 

BAZTAN
ELIZONDO · Santiago Kalea, 79
MALERREKA · DONEZTEBE
Mourgues etorbidea, 24

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere.

24 ORDU | 365 EGUN | **948 48 95 50**
info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

DONEZTEBEKO
AVIA
GASOLINDEGIA

IBILGAILUEN GARBITOKI
BERRIA

Lantza bidezko garbiketa
ur beroarekin
Koloretako aparra
Urberitze ona
Argizaria
Distira emaila
Galeria altuak



DONEZTEBE, Leitza bidea, 49 | T. 948 451 679 | www.doneztebe.net

 IZARRA
TANATORIO
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO



Gure lurra, gure jendea,
gure sustraiak

TANATORIOAK
Elizondo Arantzaz Bera Igantzi Doneztebe
izarratanatorio.com · 948 059 090

 **24 h**
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

 **KULTURKARI**
Diseinu grafiko | Publizitatea
www.kulturkari.com

**Olanak,
Roll-up
PVC**
Zuloekin izkinetan, errefortzu
bikoitza, formatu handiak,
mikroperforatuak...





IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**
www.tanatoriosirache.es

PLAZAN BAZAN

GAUEKO


Izaki mitologiko liluragarri bat da Gaueko, baina jendeak beldur handia dio, iluntasunean bizi delako eta gabez hura baino nagusiagorik ez dagoelako. Dena erran behar bada, zehazki nolakoa den ez daki inork. Zure ustez, zer forma du? Marraztu ezazu laukian.



A large empty rectangular box with a dotted border, intended for drawing the form of Gaueko.


SUDOKUA

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak GAUEKO hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (G, A, U, E, K eta O). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



GAUEKO DOMINOA

Bete itzazu zuriuneak domino zati honek zentzua izan dezan. Batez ere gauari lotuta ageri ohi diren sei gauza sartu behar dituzu fitxetan, komeni denean:



Ilargia



Izarra



Armiarma



Planeta



Teleskopioa



Saguzarra



INTERNETEN ERE BAI!

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Ttípi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU TRUK
% 80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.erran.eus/kideak

907 zenbakiko
irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Itziar Azpiroz Garcia | DONEZTEBE
Arantza Hotela - SPArako bi sarrera + gosaria
Jose Apeztegia Bertiz | SUNBILLA
Sarako lezeak - Sarrera bikoitza
M^a Jesús Iribarren Madariaga | IGANTZI
EzKexa - Kamiseta bat
Tere Arretxea Iraizoz | ORONOZ
Buatxabal - Kamiseta bat
Kontxi Lastiri Dorremozoa | NARBARTE
Hara bi - Kamiseta bat
Gabina Iparragirre Altzugarai | ERRATZU
La Perla - Talasoterapiarako bi sarrera
Pili Albistur Mitxelena | BERA
Arrauning - Aukeratu jardueretako bat
Mari Carmen Urriza Indart | ELIZONDO
Ostargi Optika - Betaurreko batzuk
Karmele Indaburu Bereau | ETXALAR
Zortziko labetxea - Bi lagunendako gosaria
Joseba Eskudero Navascues | LEITZA
Pamiela - Bi liburu
Ibon Urtiaga Sanz | BETELU

MENDUKILO


www.mendukilo.com



Bi sarrera

ARANTZA HOTELA

www.arantzahotela.com



SPArako sarrera bikoitza eta gosaria

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat lezeetarako

URDAZUBIKO LEZEAK

www.cuevasurdax.com



Sarrera bikoitza

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

EZKEXA

www.ezkexa.com



Kasketa bat

MUGARKI


www.mugarki.com



Rokodromorako sarrera bikoitza

SALTOKA JUMP

www.saltokajump.es



Sarrera bat

MARTIKO

www.martiko.com



Lote bat

TABERNA EDARIAK

www.tabernaedariak.eus



Lote bat

EREIN

www.erein.eus



Bi liburu



Sartu

ttipi.eus/ttípi-txartela

eta ikusi
abantaila guztiak!

Oraindik ez duzu **ttípi txartelik**?
Egin zaitez **ttípi lagun**!
Ez galdu sari izugarriak irabazteko
aukera eta zure inguruko komertzioetan
deskontu eksklusiboak izanen dituzu!